



ORAIN ARTE BELAR
HEMENDIK AURRERA GARI / 8-10



Daniel Negrodo Perez kafe txigorgailuaren arduraduna eta Amaia Bengoetxea Lezea Akeitako kafe dendaria.

Kafe fruituak Akeita bihurtuz

Kafearen prozesu guztia egiten dute Altsasuko Akeitan: fruitu berdeak jaso, txigortu, birrindu eta kafetegian edateko aukera ere dago. Gehienbat Amerikatik iristen da kafea, eta blend-ak, salduenak, sari bat jaso zuen

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Kafea edo akeita, kafe landarearen fruitu txigortuak birrinduz egiten den edaria da. Kafe landareak herrialde tropikaletan eta subtropikaletan ereiten dira, eta Altsasuko Akeita lantegian Etiopia, Honduras, Kolonbia, Brasil eta abarretik iritsitako kafe-bihi berdeak jaso eta txigorgailuaren bidez eraldatzen dituzte, Akeitako kafea sortuz.

"Oso ekintzailea zen. Zer ez dago hemen eta zer izan daiteke interesgarria: kafea". Amaia

Bengoetxea Irizar Altsasuko Iortia plazan dagoen Akeita dendaz arduratzen da. Bere aita Francisco Javier Bengoetxea Lezeak jarri zuen martxan kafea txigortzeko enpresa. "Lehendabizi txigorgailua Ferial kalean

**"PROZESU BAT DA,
GAUZA TXIKI ASKO
DAUDE, ETA EGITEN
IKASTEN DUZU"**
AMAIA BENGOTXEA

jarri zuen. 20 urterekin hasi zen, 1966. urtean, nire aitona-amonaren laguntzarekin". Kafearen munduan sartu zen, kafea txigortzen eta saltzen hasi zen eta ondoren ostalaritzara zabaldu zen. "Auzo denda bat zen eta Altsasukoa eta, gehienbat, auzoko jendeak erosten zion". Gerora Iruñeko kafe saltzaile gehiago ezagutu zituen, baina Altsasuko txigortze enpresa bakarretarikoa izan zen.

Kafearen munduan "poliki-poliki" sartu zen eta, ondoren,

duela 30 bat urte Irun-Gasteiz errepidean lur saila erosi zuen eta nabea eraiki zuen. "Gehiago zabaldu zen". Azkeneko pausoa kafetegia izan zen. "Hasieran denda jarri zuen, txigorgailua itxi ondoren dendan saltzen zuen, Iortia plazan. Hor ama egoten zen txutxeriak eta fruitu lehorrak saltzen. Hori ere zabalitzen joan zen, kafetegia ireki zen arte". Kafea berde erostetik kafe katilua mahaian jarri arte. "Berak prozesu guztia egin nahi zuen, eta lortu du". Kafetegian ere denda dute.

Ogibidea

Amaia Bengoetxea kafetegian dago eta Daniel Negrodo Perezek darama kafe txigorgailuaren "istorio guztia". "Dani aitarekin lanean hasi zen, aitak orain ezin du lanik egin, eta Danik oso ondo darama". Ogibide bat dela

**"ASTELEHENERO
TXIGORTZEN DUGU,
KAFAA OSO
BERRIA DA"**
DANIEL NEGREDO

esan du Bengoetxeak: "Prozesu bat da, materiala eraldatu behar duzu, gauza txiki asko daude egiten ikasten direnak, eta guk ikasi ditugu".

Lehenengo txigorgailua jarri zutenetik gaur egun arte, gehienbat, "merkatua" aldatu dela azaldu du Negrodok. "Honek antzeko jarraitzen du. Berdin txigortzen da". Produktua garestitu egin dela esan du, eta Bengoetxeak gaineratu du geraz eta kafe gutxiago ekoizten dela klima aldaketak eragiten duelako. Baina, bestela, prozesua berdina da. Negrodo: "Merkatua asko aldatu da, baita jendeak eskatzen duena ere. Orain jendeak hartzen duenagatik ardurara gehiago du. Lehen jendeak ez zion hartzen zuenari hainbeste garrantzia ematen". Etxean kafe ona edateko "olatu" antzeko bat dagoela esan du: "Interes handia dago jakiteko zer ari zaren hartzen".

Ostalaritzan, aldiz, kafe "txarra" hartzen dela esan du Bengoetxeak. "Jendeak kafesnea edo ebakia hartzen du, hau da, kafea esnearekin, ostalaritzako kafea txarra delako. Ezin denez hutsa edan zerbaitekin izkutatu behar duzu: azukrea, esnea, esne kondentsatua, krema...". Hutsa oso jende gutxik edaten duela azaldu du, baina noizbait probatzeko eskaintzean hasierako erantzuna ezezkoa den arren, probatuz gero "gozoa" dela esaten diote: "Ona dagoela, eta noski ona dela. Kafe hutsa ona da eta on egiten dizu. Baina kafe txar bat ez du azukreak ez ezerk hobetzen". Kafaina mailak ere kafearen kalitatearekin bat egiten duela azaldu du kafe saltzaileak: "Geroz eta kalitate hobea, kafeina gutxiago. Orduan, gauean lorik ez duzula egingo esatearena, kafeina asko duen kafe bat hartzen baduzu...".

Kafearekiko interesa "hemen" nahiko berria dela esan du Negrodok. "Nik uste kanpoan aurretik hasi zela, baina hemen beranduago iritsi da; duela bost bat urte". Jendea kafetera bereziak eta abar erosten dabil. "Nik



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

**EROSOTASUNERAKO
PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehio berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea



ere nabaritu dut jende askok kapsuletako kafetera zuela eta dendara etorri dela pixka bat nazkatu delako", azaldu du Bengoetxeak. Akeitan ere kafea kapsuletan egiteko proiektua martxan jarri zuten, baina "beste guztien zaporea" zuela azaldu du Negredok. "Ez baduzu zerbait ona egin behar, txarrerako bada, ez genuen egin", gaineratu du Bengoetxeak. Sobretan saltzen duten zopa bezalako delako azaldu du kafe saltzaileak: "Une jakin baterako ongi dator, baina egunerokorako ez. Boom bat egon zen, marketing kanpaina oso handia, eta kafetera polit horiekin, oso txikiak zirenak, kapsula jarri eta baduzu kafea". Baina denborarekin jendea konturatu da kapsuletako kafetera baten prezioagatik "superautomatika" bat eros daitekela. Kafe "ona" probatzeko aukera eman duela esan du: "Orduan, kafea gustatzen bazaizu, kafea baloratzen baduzu, aholkuak eman go dizkizugu...".

Lapikoan egiten zen kafetik, "atxikoria botatzen ziotela askok", gaur egungo mota guztietako kafe ontzietara. "Askotan esaten didate atxikoria botatzen diotela bere amak horrela egiten zuelako. Normala da, zapora hori bilatzen duzu; ez da txarra, baina beste zapora bat bilatzen ari zara". Oraindik ere gehien erabiltzen den kafetera italiarra dela diote biek. Bengoetxea: "Kafea birrintzeko galdetzen diet zein kafetera erabiltzen duten eta gehienek italiarra erantzuten dute. Prezio eta kalitate erlazioan hoberenetarikoa da". "Erosoa, garbia eta kafea ongi ateratzen dela gaineratu du Negredok.

Lau amerikarrak

Etiopia, Honduras, Kolonbia, Brasil, Nicaragua eta Peruko jatorriko kafea dute oraintxe bertan Akeita txigorgailuan. Baita Kolonbiako organikoa ere. "Organikoren bat izaten saiatzen gara; beste prozesu bat da, eta batzuek asko baloratzen dute hori ere". Kafe dendan gehien saltzen duten kafea Amerikako lau kafe desberdinekin egindako blend-a da, "dudarik gabe", lau amerikarrak deitzen diotena. Iruñeko denda baten saria irabazi zuen. "Oso kafe orekatua da eta gorputza dauka". Jendeak "sarikoa" eskatzen duela esan du Bengoetxeak, "eta galdetuta

ea dakien zer kafe daraman ezetz erantzuten dute eta birrintzen ari naizen bitartean azaltzen diet". Kultura ere bada.

"Merkatua aldatzen joaten da. Batzuetan badira kafeak oso garestiak ateratzen direnak, baina ez duten kalitateagatik, baizik eta prezio espekulazioagatik, ekoizpenagatik edo multinazionalen eramatzen dutelako etekina". Hori gertatzen denean, jarraitu du Bengoetxeak, aukera ematen die beste kafe batzuk probatzeko, "eta ez lerrokatzeko betikoetan. Batzuetan galdetzen digute ez dugun kafe jakin bat. Bada, agian momentu horretan ez, baina beste bat probatzeko ematen diegu".

Kafe-landarearen fruitua inportatzeko prozesua "erraztu" dela azaldu du Negredok. "Edozer gauza erostea bezala". Aldatu dena laginak jasotzea da, "lehen gehiago ematen zituzten". Urte luzeetan lortutako konfiantza dela ta, "badakite zein den gure kalitate estandarra eta ez digute itzuli dezakegula aurreikusten duten edo gure estandarren azpitik dagoen ezer ematen".

Sare sozialetan azken aldian espezialitate oso ezaguna egiten

"MERKATUA ALDATZEN JOATEN DA; ALDATZEKO AUKERA EMATEN DIGU" AMAIA BENGOETXEA

ari da Negredo; hiri handietan modan dagoen kafea: "Aurrekoan pentsatu nuen, Akeitak hamarkadak daramatza espezialitate kafea egiten. Jatorri jakin bateko eta trazabilitatea duen kafea da. Besterik gabe. Badakizu nondik datorren eta bere prozesua zein den". Batzuetan gauzei izena jarri behar diote, eta horrekin prezioa igotzen da. "Eta hemen ez horrenbeste. Esaterako, hemen dugun espezialitate bat Peru Supremo da". Bengoetxeak gaineratu duenez, kafetegi espezializatuetan pausoz pauso eta pixkanaka kafea prestatzen dute, "eta hori azkenean dirua da. Pertsona batek hamar kafe prestatzen egon beharrean, bakar batekin denbora pila bat ematen du".

Kafe berdea

Altsasuko Akeitako txigorgailuan sartzean kafe usaina dago edo, hobe esanda, kafe txigortu usaina. Lantegira kafe-bihiak, haziak, berde iristen dira, zakueta, eta makinekin "tostea" egiten da. Zakuak jatorriaren arabera antolatuta daude: peruarra, kolonbiarra, brasildarra, kafeinarik gabeko brasildarra eta nicaraguarra. "Zulo bat dago eta bertan kafe berdeak sartzen ditugu eta tubo batzuetatik txigortze makinatarara doa". Makina horretan beroa dago eta tenperatura eta denbora kontrolatu behar da. "Tuestearen prozesuan zulo batzuetatik kafea begiratzen eta

sua kontrolatzen duzu". Oso inarrizko prozesua dela esan du kafegileak. Behin txigortze egokia lortzen denean, makinaren hurrengo urratsera pasatzen da kafea, palankana antzeko batera non kafea azkar hozten den. "Aire hotza ateratzen da, bestela txigortzen jarraituko luke".

Kafea hotza dagoenean zinta batetik beste makina batera doa, eta bertan kafea produktu naturala denez, izan ditzaketan harritxoak edo egurtxoak kentzen dira. "Kontrol mahaitik makinari esaten zaio zer konpartimentutan sartu nahi den kafea, barietatearen arabera edo nahasi nahi diren". Azken pausua paketatzea da.

70 kiloko zakutan egon ohi da kafea eta horiek guztiak txigortzen dira astelehenetan. Azken aldian ostiraletan ere txigortzen ari direla gaineratu du Negredok. "Bereziak eskaeraren arabera egiten ditugu". "Kafe oso berria da. Txigortu berria", azaldu du Bengoetxeak. Helburua kafea "zaharkitua" ez gelditzea da. "Gutxi gora behera badakigu zenbat saltzen dugun. Baina ez dugu nahi kafea bueltaka izatea bi astez: usaina

"KAFAA GEROZ ETA GEHIAGO BALORATZEN DA, INTERES HANDIAGO DAGO" DANIEL NEGREDO

galtzen du, zaporea, oxidatzen da...".

Kafearen kalitatearen parte bat "freskoa" egotea dela gaineratu du kafe saltzaileak. "Behin Londresera joan ginen eta Harrodsen Jamaikako Blue Mountain kafe oso goren bat zegoen, ehun gramo prezio oso altua zuena, baina noiztik zegoen kafe hori hor? Zer ibilbide izan du kafe horrek? Agian erosten duzu eta ez du usainik". Momentuan txigortuta badago, eraman dezaket, bestela, ez. "Benetan balio duela ikusi nahi dut. Ordaintzeko prest nago, baina benetan mezezi duelako". Negredok gaineratu duenez, kafe ekoizle diren herrialdeetatik oparia kafea izan ohi da, "eta azkenean kafe hori hemen dago, hobe da hemen zuzenean hartzea".

Intentsitatea

"Nik bezeroei beti galdetzen diet kafea nola gustatzen zaizen, ea gustatu zaizen, kafetera... Batzuetan esaten didate semiautomatika bat erosi dutela, ez dakit zenbat diru gastatu dutela, eta kafea oso txarra dela. Ehogailua erregulatzeko aukera dagoela badakizu? Ezetz...". Askotan kafea txarra egotearen errua kafeari berari errua botatzen diotela dio Bengoetxeak, "supermerkatuan aurkitutako kafe guztiak probatu dituztela esaten didate. Jendea pixka bat galduta egoten da, eta aholkatzen saiatzen gara. Kafe fuertea nahi dutela. Baina fuertea zer da? Niretako fuertea txarra da! Intentsoa. Zer kafetera duzu? Tanta erortzekoa. Bada, akatsa; ez zaizu oso intentsoa aterako oso uretuta aterako zaizulako...". Kafetera bat erosi aurretik ere galderak erantzuteko prest dago kafe dendaria. "Galdetu behar da".

Negredorendako Akeita berezia da baloreanjartzen duelako kafea. "Kafea ongi ateratzea nahi duzu. Jendeari gustatzen zaion bezala ateratzea, eta bakoitzari modu batera gustatzen zaigu kafea". Geroz eta gehiago baloratzen den produktu bat da, "eta dendan ere gehiago saltzen ari da, baita dendetan ere". Altsasuko Iortia plazan dagoen denda ez ezik, non kafea birrintu gabe edo bertan birrintu eros daitekeen, Sakanan janari dendak dauden herri gehienetan ere saltzen dituzte Akeitako kafeak, eta tabernetan zerbitzatzen dituzten kafeak ere bertakoak dira.



Kafe berdea zakuan.



ASTEKOA

ANDREA CARRILLO JUANBELTZ

Azkenik, uda

Denbora geroz eta lasterrago pasatzen denaren sentsazioa daukat azken urteotan. Dagoeneko, udaren usaimena nabaritzen dut. Tenperaturaren igoera, eguzkiaren presentzia ala urarekiko ezjakintasuna. Baita arropa aldaketa, gorputzarekiko ardura edota oporren erabakia ere. Dena batera, bai munduarekiko bai geure buruarekiko kezka, nahasketa polita datorriguna.

Batetik, aldaketa klimatikoa, urtetik urtera nabariagoa dena. Temperatura altuek arriskuan jartzen dute bizitza eta uraren presentzia. Ura, orain arte geure ingurunean oparotasunez jasotakoa, azken urteotan honen gabeziaren seinalea jaso dugu. Aldaketak, geure erosotasunean geunden bitartean, eta hauei egokitu beharra. Gai izango al gara, ura denon artean elkarbanatzen, geure ipurtzuloari begiratu ordez?

Bestetik, beroarekin arropa ezberdinak jantzeko beharra datorrigu. Bainu jantzia, gonak, praka eta kamiseta motzak. Horiek guztiak, geure gorputza gehiago erakusten dutelarik.

Noski, horrek dakarren gorputz perfektua edukitzeko presioa nabari dugu ekaina hasita. Bat batean, guztiok hasten gara elikadura zaintzen ala kirola egiten, urtarriletik proposatu eta hasi ez dugun guzti hori.

EROTASUN HONEKIN GUZTIAREKIN, ZORIONEKO UDA OPA DIZUET

Zer esanik ez oporrei buruz, geroz eta urrunago ala garestiago izan behar direlarik. Gaur egun, murgildurik gauden nahaste ekonomiko honetan egonda, familia gehienok nahiko dugu hilabete bukaerara ailegatzeko gai izatearekin.

Hala, erotasun honekin guztiarekin, zorioneko uda opa dizuet. Gorputzaz disfrutatu, uraz gozatu, eta natura errespetatzen saiatu. Bakoitzak ahal duen lekutik, uda bizi.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eu

HARA ZER DIEN

Eraso sexistarik gabeko Sakanako festen alde

SAKANAKO MANKOMUNITATEKO ETA ALTSASUKO UDALEKO BERTINTASUN-ZERBITZUAK

Urtero bezala, uda ate joka dugun honetan, gure bailarako herriak festan murgilduko dira. Jaiek gure eguneroko errutina eta monotoniatik ateratzen laguntzen digute, maite dugun jendearekin, gure herrikideekin, ospatzeko eta ondo pasatzeko parada eskaintzen digute. Halaber, festak gure jendartearen antolaketa egituraren adierazgarri ere badira eta, zentzu honetan, emakumeen eta gizonen arteko botere

harremanak birproduzitzen dituzte.

Genero-desberdinkeria horien alderdietako bat indarkeria sexista da, hau da, emakumeek emakume izate hutsagatik jasaten duten indarkeria. Jaiek hainbat ezaugarri dituzte. Esate baterako, egunez ez ezik, gauez ere ateratzea; alkohola eta bestelako drogak kontsumitzea; arau sozialak malgutzea eta abar luze bat. Ezaugarri horiek generoagatiko indarkeria-testuinguru batean kokatzen baditugu, emakumeek festak berdintasunean eta askatasunean bizitzeko eta

gozatzeko aukerak mugatzea dakarte.

Horregatik, Sakanako Mankomunitateko eta Altsasuko Udaleko Bertintasun-zerbitzuek aurten ere kanpaina bateratua egingo dugu jai giroan emakumeen kontra egiten diren eraso zein jazarpenen aurka herritarrak sensibilizatzeko, eta erakundeen nahiz gizarte osoaren konpromiso irmoa adierazteko. Gu guztion ardura delako emakumeek jaiak aske bizi ahal izatea.

Festetan ere eraso sexistarik ez!

GUTUNA

Etxarri Aranazko Udalari

SANTI AIESTARAN GOIKOETXEA
MALKARRAMENDI 5.EKO
ADMINISTRATZAILEA

Malkarramendi kalea, 5. eta 3. zenbakiak, duela 57 urte Etxarri Aranatzen eraikitako 16 pisuko eta etxabeko eraikin baten helbidea da. Eraikinaren azpitik hodi bat igarotzen da, 2 kutxatilatara konektatuta dagoena. Kutxatila horiek kaleko euri urak, Mikel Arregi parkekoak eta ondoko bi kaletakoak jasotzen dituzte.

Duela urtebete hezetasunak sortzen hasi ziren lurzoruetan eta egitura zutoinetan, eta hodiaren

gaineko bajera baten zolak ere behera egin zuen. Berehala jakinarazi zitzaion idatziz Udalari, eta peritu arkitekto baten zerbitzuak kontratatu ziren.

Kamera bat sartu eta egiaztatu zen hodi hori hautsita zegoela metro bateko sakoneratik aurrera.

Buxatutako ur beltzen kutxatila bat zabaltzean, hondarren artean besteak beste, ikusi genuen zolako harri koxkorak eta harri xeheak zeudela. Arkitektoaren txostenak zioenez, "euri ura libre ari da ibiltzen, zola jasotzen".

Harrezkero, hamar aldiz eskatu zaio Udalari arazoa konpontzeko, zimenduak

kaltetu eta ezbeharren bat gertatu baino lehen (Teruelen aurrekoan gertatutakoaren antzera). Udalak oraindik ez du ezer egin, ezta errekerimenduei erantzun ere. Gogoratu Udala EH Bilduk zuzentzen duela gehiengoz. Mesede eskasa egiten ari zaio koalizioari. Ezker abertzalearen aldekoa naizenez, jarrera hori amorragarria egiten zait. Jarrera horrek lotsagabekeria gaintitzen ditu aurreko korporazioak, gogoratu behar ez diren beste sigla batzuekin.

Arriskuan jartzen ari da 16 etxebizitza eta bertan bizi diren bizitza.

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eu

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eu
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eu
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eu

Zuzentzailea:

Joxe Aldasoro Jauregi

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eu

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
Iñaki Rubio Mendoza
kirolak@guaixe.eu
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eu

Maketatzailea:

Lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eu

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eu

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eu

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Emakumeen kontrako sexu erasoen aurrean arduraz jokatzera deitu dute.

Festetan eraso sexistaren kontra

Sakanako Mankomunitateko eta Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzuek kanpaina bateratua egin dute. Gainera, festa eta festa guneetan eraso sexistaren prebentzio eta arreta protokoloak bateratu eta landu dituzte

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Aurtengo udako eraso sexistaren kontrako kanpainak bi lelo izanen ditu. Alde batetik, *Jarain! Eraso sexistarik gabe Sakana libre!* Lema hori Sakanako ia herri guztietako festetan indarkeriaren kontrako irudi bateratuarekin jendarteratuko da. Altsasun, berriz, leloa *Zure ardura da* izanen da. Aizaga Zeberio Petriatik, Altsasuko Udaleko berdintasun teknikariak azaldu duenez, "bi leloak elkarren osagarriak dira". Zeberio gaztigatu duenez, "kanpainak dituen bi helburu nagusiei erantzuten diete. Bata da, festa egun eta eremuetan emakumeenganako erasoen aurka herritarrek sentsibilizatzea. Eta, bestea, errealitate horren aurrean, instituzio eta jendar-te osoaren ardura eta konpromiso irmoa adieraztea".

Aipatutako leloak hainbat modutara zabalduko dituzte. Ohiko kartel eta pankartez aparte, ibarreko herri guztietako udal ordezkari eta herritarrek parte hartzen duten hiru bideotan ikusgai izanen dira. Gaur zabalduko duten bideoan sanjoanak eta sanpedroak ospatzen dituzten herrietako jendeak izanen dira protagonistak. Garilean festak ospatzen diren herrietakoak izanen dira bideotako protagonistak eta agorrila bukaeran zabalduko dutenean irailean festak dituzten herrietako biztanleen txanda izanen da.

"TABERNARI ETA TXOSNETAKO LANGILEENDAKO PROPIO IRIZPIDEAK LANDU DITUGU"

Horretaz aparte, festarik festa informazio gune ibiltaria izanen da. Horren bidez, "indarkeria sexistaren prebentzioa eta sentsibilizazioa landuko da", azaldu du Zeberio. "Helburu nagusia erasoen gaineko informazioa ematea eta horiei aurre egiteko tresnak eskaintzea da", gaineratu du teknikariak. Emagin elkarteko formatzaileak izanen dira herrietan hainbat orduz argibideak emanen dituztenak.

Ostalaritza

Kanpainaren baitan, azkenik, eraso sexistei aurre egiteko jarraibideak ikusgai jarriko dituzte txosna eta tabernetan, "herritar guztiek jakin dezaten nola jokatu erasoaren aurrean", argitu du Mank-eko berdintasun teknikari Oihana Gallo San Romanek. Gaineratu due-

nez, "tabernari eta txosnetako langileendako irizpide espezifikokoak landu ditugu, eta indarkeria sexistari buruzko formazio saio bat egingen dugu garilean 12an. Horregatik, tabernetako langile eta txosna guneetako parte-hartzaileak saio horretan parte hartzera gonbidatzen ditugu. Goizeko edo arratsaldeko saiora joateko aukera izanen dute".

Bi ordu iraunen duten saio horietan parte hartzen dutenei, alde batetik, indarkeria matxistari lotutako hainbat kontzepturen arteko desberdintasuna azalduko zaie. Bestetik, indarkeria matxistaren zenbait dimentsioren berri emanen diete: zuzeneko indarkeria, egiturazko indarkeria eta indarkeria simbolikoa. Horrekin batera, saioan festetan izaten diren eraso matxisten inguruko zurrumurruek eta mitoak deseraikitze gakoak azalduko dira eta, azkenik, kasu praktikoaren gaineko lanketa egingen dute. Hau da, eraso baten aurrean nola jokatu aztertuko dute. Horretan gakoa da emakumezkoen ahalduntzea eta ardura kolektiboa. Saioak berdintasun teknikariak eta Emagineko kideek emanen dituzte. Esan bezala bi orduetako daude aukeran: 10:00etatik 12:00etara edo 15:30etik 17:30era. Izena eman nahi dutenek berdintasuna@sakana-mank.eus edo berdintasuna@altsasu.net e-posta helbideetara idatzi dezakete.

Protokolo bateratua

Zenbait herriko aurretik bazituzten festa eta festa guneetan eraso sexistaren prebentzioa eta arreta protokoloak. Gallo azaldu duenez, "aurten Sakanako Protokolo bateratua landu da. Helburu orokorra da ibarreko herrietako festetan gertatzen diren eraso sexistaren aurrean, jarduketara bateratu eta koordinatua egituratzea, Mankomunitateak eta Udalek ematen duen erantzuna hobetze aldera". Gallo azaldu duenez, hiru helburu zehatz ditu. Aurrean, "eraso sexistekin lotutako prebentzioari, sentsibilizazioari, arreteri eta komunikazioari dagozkiek prozedurak sistematizatzea eta adostea". Bigarrena, "festa guneetan eraso sexistei aurre hartzea, ekiteko tresna eta estrategien bitartez". Eta, atzena, "herritar guztiei jakinaraztea emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko erantzukizuna".

Protokoloa kudeatzeko bi gune daude, alde batetik, festetako eraso sexistak prebenitzeko mahai iraunkorra dago. Bertan Berdintasun batzordeak eta antolatuta dagoen herrietan mugimendu feministak parte hartzen dute. Bestetik, eraso sexistaren aurrean erantzuteko mahaiak. Horren bueltan udal ordezkariak, Mank eta antolatuta dagoen herrietan mugimendu feministak parte hartzen dute.

EGUN ON SAKANA
Goizero 10:00-12:00
Errepikapena 14:00-16:00
web bidez: www.guaixe.eus
beleixe 107.3 FM

Udalari kultur eskaintza euskalduntzeko eskaera

'Altsasun kultura euskaraz ainguratu gura' ekimeneko kideek jaso dituzten bostehunetik gora sinadura udaletxean aurkeztu dituzte. Herriko kultur eskaintzan euskaraz presentzia handiagoa izatea eskatu dute

ALTSASU

"Hastear den legegintzaldi honek balio dezala altsasuar euskaldunon eskubideak bete eta herrian euskara sustatzeko helburuz hitzetatik ekintzetara pasatzeko". Helburu horrekin *Altsasun kultura euskaraz ainguratu gura* ekimeneko kideek jaso dituzten bostehunetik gora sinadura udaletxean aurkeztu zituzten joan den astean. Sinadura horien babesarekin, ekimeneko kideek hiru eskaera egin dizkiote udalari. Alde batetik, hurrei eta gaztetxoei zuzendutako kultur ekitaldien %100 euskaraz izatea. Beste alde batetik, helduei zuzendutako programazioaren %25 gutxienez euskaraz izatea. Eta, azkenik, udalaren euskarazko kultur eskaintza urtetik urtera handitzeko plangintza bat osatzea.

Altsasun kultura euskaraz ainguratu gura ekimeneko kideek gogorarazi dutenez, "hainbat herritarrek Altsasuko Udalaren euskarazko kultur eskaintzarekin kezkatuta gaude. Eta, kezka horretatik abiatuta, zenbait guraso eta gazte elkartu ginen. Guztien artean urte hasieran sinadura bilketa bat abian jarri genuen Altsasun". Haren helburua zen "udalaren kultur eskaintza euskalduntzeko" babesak batzea, eta, aldi berean, gaur



Ekimeneko kideak sinadurak udaletxean aurkeztera joan ziren. UTZITAKOIA

egungo egoera jendartean agerian uztea.

Ekimeneko kideek azaldu dutenez, "gaztetxo eta haur ia guztiak euskaldunak badira ere, haiei zuzendutako kultur ekitaldi asko gaztelaniaz dira oraindik. Zer esanik ez helduoi zuzendutakoak". Nabarmendu dutenez, "asiak euskararen erabileran duen garrantziaz jakitun, kultur arloak eragin nabarmena izan dezakeela iruditzen zaigu. Hori dela eta, Altsasuko Udalari euskarazko eskaintza bermatu eta sustatzea dagokio".

Altsasun kultura euskaraz ainguratu gura ekimeneko kideen iritziz, "azken legegintzaldian ez da aurrerapausorik eman. Iortia kultur gunean, esate baterako, euskararen presentzia eskasa izan da". Ekimeneko kideen iritziz, "Altsasuko Udalaren partetik apustu falta dago horren atzean". Eta gaineratu dutenez, "euskarazko ikus-entzunezko gutxi ekartzea gutxi balitz, gainerako herrietan euskaraz eskaini izan dutena gurean gaztelaniaz eskaini izan dute behin baino gehiagotan".



Eskolako ikasleak azokan jarritako salmenta postuan saltzen. UTZITAKOIA

Ikasleen elkartasun azoka arrakastatsua izan zen

Ekimenak 2024an jarraituko du, eskolak eta Anitzartean zerbitzuak dagoeneko hitzarmena sinatu baitute

OLATZAGUTIA

Beste saltzaile batzuekin batera, Domingo Bados eskolako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek salmenta postua jarri zuten azokan asteartean. Haien postutik senideez aparte, hainbat olaztiar ere pasa ziren erosketak egitera. Ikasleen salmahaia, ordea, berezia zen, *Ongi etorri errefuxiatuak, elkartasun azoka* baitzen. Ikasleek azken sei astetan errefuxiatuen inguruko proiektu bat landu dute. Eta haren baitan kokatzen zen elkartasun azoka.

Ikasleek egindako eskumuturrekoak, esku orriak, brotxeak, Help NA gobernuz kanpoko erakundearen materiala (kamisetak, txapak eta mandarrak) saldu zituzten. Ikasleek borondatearen truke pegatinak banatu zituzten. Gainera, Marokon jaiotako emakumezko olaztiar batek ogiak eta gozoak eraman zituen eta denak saldu ziren. Saharar jato-

rriko emakumezko olaztiar batek tea eskaini zuen. Ikasle guztiak salmentan parte hartu zuten, baita azoka herriko saltokietara hurbilduz. Ikasleek ere beraien erosketak egin dituzte.

Horretaz aparte, ikasleek plazako paretetan Sakana Harrera Haranaren errefuxiatuei buruzko argazki erakusketa jarri zuten eta errefuxiatu eremuetan erabiltzen duten kanpin dendetako bat ere.

Proiektu guztiaren oso balorazio ona egin dute eskolako eta Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuko ordezkariak. "Ikasleak oso pozik zeuden", gaztigatu dute. Jakinarazi dutenez, ikasleen sei asteko ekimenaren ondorioz, Help NArendako 600 euro inguru eskuratu dituzte. "Haiek oso eskertuta daude, errefuxiatuendako proiektuetara bideratuko dute", azaldu dute elkartasun azokako antolatzaileek.

Aukeratu ez epaitzea. Parte hartu aldaketan.

Erraza da pertsonei etiketak jartzea. Edonori egokitu dakiguke gizarte-bazterkeria egoera bat bizitzea.

Esker oneko pertsona hauek etxean dauden istorioak ezagutu nahi badituzu sortu npobrezaz.org webgunean

Red Navarra de Lucha contra la Pobreza y la Exclusión Social
Pobrezaren eta gizarte-bazterkeriaren kontrako Nafarroako sarea

Zortzi herrirendako 2,4 milioiko dirulaguntza

Udalek eta kontzejuek beraien eraikinak edo azpiegiturak moldatu edo zaharberritzeko lanak egiteko dirua eman die Nafarroako Gobernuak. Kontzeju etxe, udaletxe, igerileku eta udal eraikinetan egingen dituzten lanak 2025 bitartean

SAKANA

Nafarroako Gobernuak, azkenik, Toki Inbertsioen Planeko 5. eta azken finantzaketa lerroaren ebazpena publiko egin du. Haren bidez 63 toki erakunde gizarte, kirol, kultura edo erabilera antzeko azpiegituretako obrak egiteko aukera izanen dute. Foru administrazioak deialdi horren bidez 6.258.338,59 euro banatu ditu, haietatik 2.423.639,71 euro (%38,73) Sakanako zortzi udalek eta kontzejuk jasoko dute. Dirua 2023 eta 2025 urteen artean jasoko dute toki erakundeek.

Dirulaguntza jaso duen erakundeetako bat **Izurdiaga** Kontzejuua da. Kontzeju etxeko beheko solairuan porlana zabaldu eta haren gainean baldosak jarriko dituzte. Gainera, pipiak jotako zutabeak ordezkatuko dituzte. Lan horretarako kontzejuak 37.205,06 euroko inbertsioa egitea aurreikusi du (kopuru guztiak BEZik gabekoak dira). Lanenda-ko dirua aurten jasoko du.

Irurtzungo Udalak, berriz, igerilekuak bi fasetan berritu nahi ditu. Alde batetik, eraikina eta beheko igerilekua, eta, bestetik, goiko igerilekua, tamaina olimpikoa duena. Hura legedira egokitzeko sakonera murriztu, igerilekutik ateratzen den ura jasotzeko inguruan kanaltxo bat



Egiarretako kontzeju etxea. Goian etxebizitza bat egin nahi dute. ARTXIBOA

egin, hesiak egokitu eta bestelako lanak egingen dituzte. Aurrekontua 660.900,09 eurokoa da eta lanak aurten hasi eta heldu den urtean despidituko dituzte.

Egiarretako Kontzejuak 41.469,53 euroko inbertsioa egingen du kontzeju etxean. Beheko solairuan elkarte dago, eta goikoan kontzejuaren egoitzaz aparte espazio bat dago. Hura etxebizitza gisa moldatu nahi du, alokatu ahal izateko. Dirua 2025ean jasoko du. **Ekaiko** Kontzejuak, berriz, bere egoitza eta elkarte hartzen dituen eraikineko teila-

tua konpondu nahi du, teiladurak itajurak baititu. Lanek 33.856,33 euroko aurrekontua dute eta goinuaren finantzazioa aurten jasoko du.

Irañetako Udalak udaletxe zaharra zaharberritzeko proiektuak ere laguntza jaso du. Eraikina erabilera soziokulturalerako bideratzeko, udalak 176.108,46 euroko proiektua du esku artean. Lanak aurten hasi eta heldu den urtean despidituko dira.

Uharte Arakilgo Udalak igerilekuen erreformarako dirulaguntza jaso du, legedira egokitu

behar baitu. Igerileku putzu bakoitzak bere araztegia izan behar du. Haurren igerilekuko putzua moldatu beharko da, handitik ateratzen den ura jasotzeko inguru guztian kanaltxo bat egin beharko da, kanpoko hesia aldatu, irisgarritasuna hobetzeko dutxak egokitu eta beste. Proiektuak 200.000 euroko aurrekontua du, baina goinuak 149.523,25 eurokoa onartu du. Udalak ebazpena jaso eta aldearekin zer gertatu den aztertu zain dago. Asmoa da lanak heldu den urteko uda sasoiaren aurretik despiditzea.

Altsasuko Udalak udaletxea egokitu eta handitzeko 1.104.522,67 euro proiektua du esku artean. Udalaren asmoa da ganboikoan dagoen artxiboa beheko solairura jaitea. Horretarako, udal-terrearen atzeko partean propio eraikin bat egingen da. Etorkizuneari udaletxea goraka handitzeko aukera izanzen litzateke. Behin aldaketa hori eginda, udaletxearen banaketa aldatuko litzateke. Lanak 2025ean egingen dira.

Azkenik, **Ziordiko** Udalak udaletxean irisgarritasuna bermatzeko igogailua jarriko du. Horretarako, udal eraikinean obra handia egin beharko du. Lanek 220.054,32 euroko aurrekontua dute eta 2024 eta 2025 bitartean egingen dira.

Erreserban

Gobernuak jakinarazi duenez, erreserba zerrendan beste 217 jarduketa daude. Onartutako inbertsioren bat egiten ez bada, dirua zerrendan daudenendako litzateke. Zerrenda horretan ibarreko 11 lan proiektu daude, guztien artean 1.278.715,39 euro egiten dutena. **Arakilgo** Udalak udaletxean hainbat lan egin nahi lituzke eta 59.265,22 euro aurreikusi ditu. **Etxeberriko** Kontze-

juak frontoiaren ingurutzaila termikoa hobetu nahi du 16.081,42 euroekin. **Egiarretakoak**, berriz, frontoia estaltzeko lanen bigarren eta azken fasea egin nahi du. Pandemia iristean guztia asko garestitu zen eta kontzejuak bere kabuz lanak egitea ezinezkoa zen. Eskuin parteko egiturak jartzeko 49.255,52 euro aurreikusi du. **Etxarrengo** Kontzejuak frontoiaren iparraldean dauden hezetasunei konponbidea emateko 159.171,80 euroko proiektua prestatu zuen. **Satrustegiko** Kontzejuak, berriz, frontoia estaltzea du buruan eta 211.138,70 euroko aurrekontua du. Bestetik, **Ihabarko** Kontzejuak erabilera anitzeko eraikina hobetzeko 80.641,43 euro bideratu nahi ditu.

Udaletxea berritzean teiltatu ez zen ikutu eta itajurak daude, horregatik konpondu nahi du **Irañetako** Udalak. Lanek 31.041,89 euro balio dute. **Lakuntzako** Udalaren asmoa da igerilekuko aldagelen eraikina eta aldamenekoak berritzea. Horretarako, 290.641,40 euro bideratu beharko ditu. **Arbizuko** Udalak, berriz, kiroldegiko igerilekuak araudira egokitzeko 134.748,68 euroko inbertsioa egin beharko duela aurreikusi du. **Bakaikuko** Udalak herriko etxearen teiltatuaren erreforma egin eta eraikinaren irisgarritasuna hobetzeko 126.922,94 euro bideratzea pentsatu zuen. Azkenik, **Urdiaingo** Udalak frontoiko teiltatuaren erreforma egiteko 119.806,39 euro balio duten lanak aurreikusi ditu.

ERRESERBAN 11 LAN PROIEKTU DAUDE, GUZTIEN ARTEAN 1.278.715,39 EURO EGITEN DUTENA

FESTAK

IZURDIAGA

SAN JOAN FESTAK

EKAINAK 23 Ostirala

20:00 Txupinazoa.
22:30 San Joan gaua: Norberak eramandako afaria. Barbakoa eramatea gomendatzen dute ere. Tortilla eta postre lehiaketak.
00:00-05:00 DJ Felix.

EKAINAK 24 Larunbata

12:00 Bermuta.
12:30 Txapela jaurtiketa lehiaketa eta aurpegi margolariak.
14:00 Norberak eramandako bazkaria.
16:30 Ezk Txarangak girotutako erronda. Mozorroen gaia: pertsonaia historikoak.
00:00-02:00 The Guateq's taldearen kontzertua.
02:00-Itxierara arte DJ Javi Amezketak, tabernan.

EKAINAK 25 Igandea

12:00 Meza santua. Puzgarriak eta barredora.
13:00 Bermuta.
14:00 Catering Pamplonako bazkaria.
15:30 Puzgarriak eta barredora.
17:00 Zirku tailerra.
17:30 Bingo
19:00 Mexikarrak.
22:00 Hondarren afaria.

EKAINAK 26 Astelehena

17:00 Garbiketa eta bilketa auzolana.

UHARTE ARAKIL

SAN JOAN FESTAK

EKAINAK 23 Ostirala

14:30 Herri bazkaria.

Uharte Arakilgo Gazte Asanbladak antolatuta.

18:00 Festei hasiera emanen dien txupinazoa. Eztanda txarangarekin kalejira.

Uharte Arakilgo Gazte Asanbladak antolatuta.

18:30 2022an jaiotako haurrendako zapi banaketa, Erraldoi eta buruhandien konpartsak lagunduta. Jubilatuen elkarteak eskainitako auzatea.
20:00 Tortilla patata lehiaketa.
22:00 San joan suak, faledunak lagunduta.
00:30-04:00 Leian taldearekin dantzaldia.

04:00-05:00 Karaokea, txoznan. Uharte Arakilgo Gazte Asanbladak antolatuta.

EKAINAK 24 Larunbata

11:30 Meza.
12:00 Konpartsarekin kalejira.
13:00 Auzatea. Dantza emanaldia.
14:30 Parrillada.
16:30 Nafarroa Oinezek eskainitako Hotsein jolasgunea, Ibai kalean.
18:00 Elektrotxaranga.
20:00 Auzatea.
20:00 Iratzar taldearekin dantzaldia.
22:00 Zezensuzkoa.
00:00 Kontzertuak: Raimundo el Canastero eta Z-eruan & L'kano. Uharte Arakilgo Gazte Asanbladak antolatuta.

EKAINAK 25 Igandea

10:30 Zamartzera erromeria buruhandi eta erraldoiekin, meza eta auzatea.
14:00 Jubilatuen bazkaria.
17:30 Gure Pilota pala eskolaren partiduak.



ETXARRI ARANATZ Kintoek zortzikoa dantzatu zuten sanadrianetan.

20:00 Zakateka Mariatxi taldea.
22:00 Zezensuzkoa.
00:00-02:00 Bizp3 taldearekin dantzaldia.

EKAINAK 26 Astelehena

12:00 Konpartsarekin kalejira.
13:00 Auzatea.
14:00 Haurren bazkaria.
16:00 Apar festa.
17:30 Txokolatada.
18:00 Xaiborren emanaldia.
19:00 Sardinada.
Aralar Mendi elkartearen eskutik.
21:30 Zezensuzkoa.

ARBIZU

SAN JOAN FESTAK

EKAINAK 23 Ostirala

SAN JOAN BEZPERAK
19:00 Brindisa eta festa hasierako kohetea, plazan.
19:30 San joan ermitara igoera Zidakos txarangarekin.
20:00 Bezperak, ermitan.
20:30 Maria Lombren Zalদিয়া

dantzatuko dute kintoek.
21:30 Herrira jaitsiera txarangarekin.
23:30-04:00 Trikidantz taldearekin erromeria, plazan.

EKAINAK 24 Larunbata

SAN JOAN EGUNA
10:30 Dianak Zidakos txarangarekin.
11:00-13:30 Herriko puzgarriak.
11:30 Ermitara igoera txarangarekin.
12:00 Meza nagusia, ermitan.
12:30 Herri gosaria udalak eskainia.
12:30-14:00 Mariachi internacional jalisciense talde mexikarraren emanaldia.
16:30-18:30 Txaranga kalejira.
18:30-19:30 Elai Alai dantza taldearen emanaldia.
20:00 Aatea. Arbizuko erraldoien aurkezpena eta lehen dantzak.
20:30-21:30 / 00:30-04:00 Fand & G0.

EKAINAK 25 Igandea

HAURREN EGUNA
11:00 Dianak. Haur eta gazteen

pilota partiduak.
11:30-13:30 Herriko puzgarriak.
12:30 Herri gosaria lurralde ezberdinetako janariekin. Abesbatzaren emanaldia.
13:00-14:00 Herriko haur eta helduen dantza emanaldia.
14:15 Haurren bazkaria.
15:30-19:30 Atracciones Sanz haurrendako jolas dibertigarriak.
20:00 Aatea.
20:00-21:30 Xaibor diskofesta.
22:00 Zezensuzkoa.
00:00-03:00 Xaibor diskofesta.

EKAINAK 26 Astelehena

GAZTE EGUNA
12:30 Herri gosaria, Argi Bidea elkarteak eskainita.
13:00 Poteoa argi gurdiaekin.
14:30 Bertso bazkaria.
18:00 Gurdi Rock Arbizuko artistekin.
20:00 Kontzentrazioa. Aatea.
20:30 Moxkor herri kirolak.

LONBREN DENDA ZURE EGUNEROKO

ONGI BILI SAN JUANETANI!

Tel.: 948 460 330
Kale Nagusia - ARBIZU

Aliprox

Arbizu
Herririk eta jaiatik

ONGI PASA SAN JUANETAN !!!

Arbizu

BIKAIN GARAJEA

Mekanika
Elektromekanika
Serie 100
pintura prototipoa
Autokarabana eta furgoneta saila

Ongi pasa festetan!

948 460 037 Arbizu

FLORES S.L.

Ongi Pasa festetan!

Utubar industrialdea Arbizu
948 460 499
Nafarroako berezko txistorra.



ARTXIBOA

ARBIZU Asteartean, Jubilatuen Egunean, herri gosaria eginen dute jubilatuek.

23:00 Kontzertuak: The Lio, Ostikoka eta DJ Bull.

EKAINAK 27 Asteartea

JUBILATUEN EGUNA

10:30 Dianak.

11:30 Jubilatuen meza, herrian.

12:00 Herri gosaria jubilatuek eskainita. Herriko trikitilariekin kalejira.

12:30 Jubilatuen luntxa.

13:00-14:30 Puro Relajo taldearen emanaldia.

17:30-18:30 Zirika Zirkus konpainiaren emanaldia.

19:00 Haurrei izozki banaketa.

20:00 Astea.

20:00-21:30 Herriko musikarien kontzertua.

23:30 Olaia Inziarteren kontzertua.

EKAINAK 28 Asteazkena

KINTOEN EGUNA

10:30 Dianak.

11:00 Kintoak eskean.

11:00-13:00 Herriko puzgarriak.

12:30 Herri gosaria Alda Bide

elkartek eskainita. Arbizuko erraldoien kalejira.

13:00-14:00 Gimnasia erritmikoko erakustaldia.

17:00 Mus txapelketa.

18:45 Benito Ros trial erakustaldia.

20:00 Aatea.

20:00-21:30 / 00:00-03:00 Laiotz erromeria.

EKAINAK 29 Osteguna

DENAK ITXAA EGUNA

10:30 Dianak.

12:30 Herri gosaria.

13:00 Herriko erraldoiei agurra.

14:30 Herri bazkaria.

16:00 Nerepe abeslariaren emanaldia.

19:30 Manifestazioa:

Denak itxaa.

20:00 Aatea.

20:30 The Road Xabier Artiedaren musika eta antzerki ikuskizuna.

22:00 Zezensuzkoa.

23:30 Kontzertuak: Herdoil, Alarma Morea eta DJ Lpunto.

ARRUAZU

SAN PEDRO FESTAK

EKAINAK 30 Ostirala

15:00 Bakoitzak bere ataria garbitu.

18:30 Suziria, herriko etxetik.

19:00 Meza, San Pedro basilizan.

19:30 Merendua, San Pedron.

20:30 2022an jaiotakoei zapien banaketa.

22:00 Zezensuzkoa txikiendako.

22:30 Arbazuko Zortzikoa, herriko plazan.

22:45 Afarria, Itur Gain elkartean.

00:30-04:30 Dantzaldia eta jauziak

Trikidantz taldearekin.

AIZKORBE

EKAINAK 23 Ostirala

SAN JOAN OSPAKIZUNAK

20:00 Iturri ondoko parkean elkartu, sua egin eta bertan herri afaria eginen dute. Ondoren, su gainean saltoka ariko dira.

ERROTZ

EKAINAK 23 Ostirala

SAN JOAN OSPAKIZUNAK

21:00 Frontoian elkartu, sua piztu, afaria prestatu eta afaldu eta, ondoren, su gainean salto eginen dute.

IRURTZUN

EKAINAK 23 Ostirala

SAN JOAN OSPAKIZUNAK

22:30 San Joan gaua: Suaren bila ikuskizuna; Amikoreen zuzendaritzan eta Iskidiko eta Irurtzango sorginen parte hartzearekin.

Aizpeak eta Pikuxarrek antolatuta.

ETXARREN

EKAINAK 23 Ostirala

SAN JOAN OSPAKIZUNAK

20:30 TXORIPANAK ikuskizuna.

21:00 Barbakoa herrikoia

21:30 Sua piztu ta saltatzera.

EKAI

EKAINAK 23 Ostirala

SAN JOAN OSPAKIZUNAK

21:00 Plazan, iturriaren ondoan,

sua piztu eta afaria prestatuko dute.

EGIARRETA

EKAINAK 23 Ostirala

SAN JOAN OSPAKIZUNAK

21:00 Bi su piztuko dituzte: handiaren gainean saltoka ibiliko dira eta txikian afaria prestatuko dute, frontoiaren ondoan.

ZUHATZU

EKAINAK 23 Ostirala

SAN JOAN OSPAKIZUNAK

19:00 Autobus geltokiaren parean sua eta otamena eginen dute.

SATRUSTEGI

EKAINAK 23 Ostirala

SAN JOAN OSPAKIZUNAK

Iluntzean, sua piztu eta barbakoa eginen dute.

HIRIBERRI ARAKIL

EKAINAK 23 Ostirala

SAN JOAN OSPAKIZUNAK

20:00 Otamena prestatuko dute Txitera elkartean. Ondoren sua piztu eta haren gainean saltoka ibiliko dira.

IHABAR

EKAINAK 23 Ostirala

SAN JOAN OSPAKIZUNAK

21:30 Sua egin eta txistorrak eta sardinak prestatuko dituzte.

IRAÑETA

EKAINAK 23 Ostirala

SAN JOAN OSPAKIZUNAK

20:30 Frontoian eta Txapel Azpi elkartean atzeko aldean elkartu eta otamena izanen da. Ondoren, sua piztu eta saltoka ibiliko dira.

IRAÑETA

EKAINAK 23 Ostirala

20:30 Frontoian eta

Txapel Azpi elkartean atzeko aldean elkartu eta otamena izanen da. Ondoren, sua piztu eta saltoka ibiliko dira. Iluntzean, suak auzoka piztu.

LAKUNTZA

SAN JOAN OSPAKIZUNAK

17:00-21:00 Suak egiteko material bileta, ezkil dorrearen ondoan.

21:00 Suak, ezkil dorrearen ondoan.

LIZARRAGA

EKAINAK 23 Ostirala

SAN JOAN OSPAKIZUNAK

Iluntzean, afari merendua, Intxorreta karrikako aldamenen. Ondoren, sua piztu eta haren gainean saltoka ariko dira.

UNANU

EKAINAK 23 Ostirala

SAN JOAN OSPAKIZUNAK

Iluntzean, suak piztu eskolak zireneko plazan eta kale batzuetan. Suaren gainean saltatu aurretik "Subiek ez piktzeko" esanen dute.

SAN PEDRO FESTAK

EKAINAK 29 Osteguna

13:00 Meza.

Ondoren, luntxa, Denok Bat elkartean.

EKAINAK 30 Ostirala

13:00 Txupinazoa eta auzatea.

13:00-15:00 / 18:00-20:00

Trikitixa.

20:00 Auzatea.

20:30-22:00 / 00:30-04:30 Ilargi taldearekin dantzaldia.

BUXEK
ILEAPAINDEGIA

Ongi pasa festak!

@buxek_ileapaindegia
www.buxekileapaindegia.com

Fernando Urkia I,
Arbizu
948 461 698

FESTAK

DORRAO

EKAINAK 23 Ostirala

SAN JOAN OSPAKIZUNAK

19:00 San Joan ermitara joan eta errosarioa eginen dute. Ondoren, ogia gazta eta ardoa banatuko du kontzejuak. Ilundu aurretik su handi bat piztuko dute eta haren gainean saltoka ibiliko dira, aparkalekuan.

EKAINAK 24 Larunbata

SAN JOAN EGUNA

09:00 Meza, San Joan ermitan. Bukatzean, gosaria. 15:00 Bazkaria, elkartean.

ETXARRI ARANATZ

EKAINAK 23 Ostirala

SAN JOAN OSPAKIZUNAK

Iluntzean, Karrika bakoitzak bere sua piztuko du eta haien inguruan elkartuko dira aldamenak.

LIZARRAGABENGOA

EKAINAK 23 Ostirala

SAN JOAN OSPAKIZUNAK

22:00 Sua egin eta haren gainetik salto eginen dute, plazan.

FESTAK

EKAINAK 30 Ostirala

19:00 Festen hasiera. Puzgarriak eta bonba japoniarrak. 19:30 Auzatea eta trikitilariak. 21:30 Afaria. 23:00-02:30 Musika.

BAKAIKU

SAN JOAN BEZPERA

EKAINAK 23 Ostirala

17:00 Maiatza jasotzea. 19:00 Meriendak. 20:00 Auzatea. 22:00 Sua piztea.

EKAINAK 24 Larunbata

Goizean eta arratsaldean puzgarriak. 14:30 Bazkaria. Hiru Haitz jubilatuen elkarteak eta Bakarreko Etxea elkarteak elkarrekin antolatuta. 17:00 Opil eta litxarrerria banaketa, auzoan. 18:00 *Amico on the beach* antzezlana, plazan.

URDIAN

EKAINAK 23 Ostirala

SAN JOAN OSPAKIZUNAK

19:30 Herrietxetik San Joan ermitara kalejira, txistulariekin, garai bateko jantziak daramaten neskekin eta dantzari txikiekin. Iristean, meza, ermitan. Ondoren, sua piztu, San Joan kantaita eta dantzari txikien emanaldia, ermitako plazan. Herrira bueltan, auzoka afariak eginen dituzte.

ALTSASU

EKAINAK 23 Ostirala

SAN JOAN BEZPERA

16:45 Txupinazoa trikitilariak lagunduta, San Juan kalean.



ARTXIBOA

ALTSASU San Joan ermitan piztuko dute sua ostiralean.

Ondoren, animazioa Levelibular taldearekin.

18:30 Txokolate Jana Chuchin Ibañez y los Charresek girotua. 19:30 Udalbaltza, Altsasuko Txistulariekin batera, udaletxetik San Joan ermitara abiatuko da. Udako solstizioa ospatzeko festa, eta auzatea Kukurrekak antolatuta, Foru plazan. 20:30 Festaren hasiera: San Joan ermitan sua piztea. Herriko suak pizteko txupin iragarlea. Kalejira San Juan ermitatik Foru plazaraino Altsasuko Txistulariek lagunduta. 21:30-22:30 Eztanda Txarangak suak dauden kaleak girotuko ditu. 23:00-02:00 Dantzaldia Ana Ganuza eta DJ Javivimaxekin, San Juan kalean.

EKAINAK 24 Larunbata

SAN JOAN EGUNA

20:00 Zortzikoa Altsasuko Txistulariekin eta auzatea, Foru plazan. Kuadrillen afariak, Foru plazan. 23:00 Haize Berriak bandarekin dantzaldia, Foru plazan.

EKAINAK 29 Osteguna

SAN PEDRO EGUNA

10:00 Udaltzaren irteera San Pedroko zelaira, Altsasuko Txistulariekin. 10:45 Auzatea eta zortzikoa. 14:30 Bazkariak. 17:00 Udaltzaren agurra zelaia barrera. Ondoren, puruen banaketa.



ARTXIBOA

LIZARRAGABENGOA Ostiralean, ekainak 30, lehertuko da festa.

20:00-22:00 / 00:00-02:30 Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia, Foru plazan.

OLATZAGUTIA

EKAINAK 23 ostirala

SAN JOAN BEZPERA

19:00 Pintxopotea. Maisuena gaztetxeak antolatuta. 19:30 Pantxo Balbuena mariatxiaren kontzertua. Barandi tabernan. 21:00 Barbakoa. Maisuena gaztetxeak antolatuta. 00:00 Sua. Maisuena gaztetxearen parean.

EKAINAK 24 Larunbata

BATUEKO EGUNA

10:30 Kalejira Burundar

Txistulariak taldearekin. Jarraian, Batuekora San Migel plazatik. 11:00 Hamaiketako, Batuekon. 13:00 Haurrendako jolasak. Olaztikoko Gazte Asanbladak antolatuta. 14:30 Kuadrillen bazkariak. 17:00 La Cigarra txarangarekin dantzaldia. 19:00 Sardinada, Batuekon (euriarekin Memoria Historikoaren parkean).

ZIORDIA

EKAINAK 23 Ostirala

SAN JOAN OSPAKIZUNAK

18:00 Auzatea, Itur bedeinkatu iturriaren ondoan, udalak eskainita. 21:00 Zortzikoa, Txipudian. 21:30 Herri afaria, Txipudian.

DUELA 25 URTE...



Toponimia mapa

Irurtzuno Aizpea euskara taldeak Irurtzuno eta Etxeberriko toponimoen mapa argitaratu zuen. Mapan jasota zeuden bi herrietako dermioetan zeuden iturri, bide, desagertutako eraikuntza, mendi, gain eta lur lauak, bakoitza bere izenarekin adierazita. Toponimia maparen osagarri gisa, garai bateko Etxeberriko eta Irurtzuno antzinako etxeen izenen zerrendak ere argitaratu zituzten.

Hamalau kontzejutako ardurak hartu dituzte

Maiatzaren 28an kontzejuak berritzeko hauteskundeak ere egin ziren. Prozesu horretatik sortutako erakunde berriak larunbatean eratu ziren. Zuhatzuko Kontzejua udaberrian berritu ez denez, udazkeneko deialdian izanen du aukera

SAKANA

Lege arrazoiengatik Aizkorbek kontzejuari utzi zionetik, Sakanan hamabost kontzeju daude: 11 Arakilen, 3 Ergoienan eta 1 Etxarri Aranatzen. Zuhatzuko Kontzejua ezik, gainontzeko guztiak berritu ziren azken hauteskunde prozesuan. 50 biztanle baino gutxiago dituzten herrietan kontzeju irekia osatu eta presidentea aukeratu zuten. 50 eta 999 biztanle arteko herrietan, berriz, kontzejuko presidentea eta lau bokal aukeratu zituzten.

Aurreneko multzoan, 50 biztanle baino gutxiagoko lau kontzeju daude Sakanan. **Urritzolan** Fermin Mariñelarena Iraizozek



Lizarragako Kontzejuko kideak larunbatean San Adrianera igo aurretik.

segituko du presidente izaten legegintzaldi honetan. Patxi Huarde Garrok **Ekaiko** Kontzejuko buru izaten beste lau urte jarraituko du. **Satrustegin** aldatu egin da, Juan Pedro Amoztegi Zubillagaren ordez Jose Antonio Angulo Bachillerrek hartu du ardura. Azkenik, Teresa Goikoetxea Arregik bigarren legegintzaldia egingen du **Lizarragabengoko** Kontzejuko presidentea izaten. Berritzea falta den Zuhatzuko Kontzejua multzo honetan sartzen da.

Bigarren multzoan, 50 eta 999 biztanle arteko hamar kontzeju daude ibarrean. Herritarrek zerrendako kideei botoa ematen die, baina boto gehien lortzen duenak ez du zergatik presidentea izan. Hautagai guztien arteko elkarrizketen ondoren aukeratu da presidentea. Izan ere, lanak, familia egoerak, kanpoan bizitzeak eta beste hainbat faktore kontuan izan behar dituzte kontzejuko presidentea aukeratzeko.

Bada, Arakilen presidentea eta lau bokal aukeratu behar izaten dituzten zazpi kontzeju daude. **Errotzen** Begoña Omatos Soria

da presidentea Javier Ortega Villaren ordez. **Izurdiagan** Oskia Larunbe Uhartek Luis Beraza Ameztegiri hartu dio lekukoa. **Etxeberrin** Javier Martija Etxarri jarraitzen du ardurarekin. Egiarretan Julen Llorens Espadak Fermin Izkieta Arbillari lekukoa hartu dio. **Etxarrenen** Migel Angel Irurtia Sarioren ordez kontzejuko presidentea da Miguel Marcos Crespo. **Hiriberrin** **Arakilen** Javier Arrieta Anizen eskutan jarraituko du kontzejuko ardurak. **Ihabarren**, berriz, Oskar Garzia Royok utzitako tokia Samuel Arraras Irañetak beteko du.

Multzo horretako gainontzeko hiru kontzejuak Ergoienakoak dira. **Lizarragako** Kontzejuaren presidentetzan ere aldaketa izan da, ardura Unai Navarro Aristorenaren eskutik Eneko Etxarri Amorinen eskuetara pasa da. Gauza bera gertatu da **Dorraon** ere, presidentea aldatu dela. Idoia Resano Igoaren ondorengoa Jon Razkin Razkin da. Eta, azkenik, **Unanun** ere kontzejuko arduren eskualdatzea izan da. Unanuko Kontzejuko buru berria Santiago Berastegi Lizarraga da.

JARAIN!
Eraso sexistarik gabeko
ARAKIL
libre!

JARAIN!
Eraso sexistarik gabeko
ARBIZU
libre!

JARAIN!
Eraso sexistarik gabeko
UHARTE
libre!

Hamalau udal berri

Legeari jarraituz, hauteskundeak pasa eta hogeit egunera osatu ziren sakandarrek aukeratutako hamalau udalak. Bakarra falta da osatzeko, Iturmendikoa, udazkenean hautagaitza aurkeztuko balitz osatuko litzatekeena. Alkateei dagokionez, bederatziz gizonetakoak dira eta bost emakumetakoak. Udal arduradun berrien aurreneko egitekoetako bat izanen da garilaren 23ko hauteskundeetarako mahaietako kideen zozketa egitea.



Arakil. Oihana Olaberria Jakak gidatuko du udala bigarrenez.



Iruztun. Bi legegintzaile eta Carreraren lekukoa h...



Altsasu. Hirugarren aldiz alkate izanen da Javier Olló Martínez, orain arte inork lortu ez duena.



Arruazu. Gorka Ovejero Ganboak jarraituko du Arruazuko alkate izaten.



Lakuntza. Legegintzaile Garmendia.



Ziardia. Bigarren legegintzaldia eginen du udala zuzentzen Olatz Irizar Martinezek.



Etxarri Aranatz. Herriko laugarren emakumetzko alkatea da Maria Saez de Albeniz Bregaña.



Bakaiku. Egoitz Urri...



aldiren ondoren, Unai Razkin Iriartek Aitor Larraza hartu du.



Irañeta. Legegintzaldia bukatu zuen alkateak segitzen du: Iñaki Arangoa Zia.



Uharte Arakil. Legegintzaldi hasieran bigarren ez eskutan hartu du esku makila Txomin Uharte Baleztenak.



aldiko alkate berrietako bat da Oihane Uribeetxeberria



Arbizu. Aginte makilarekin segituko du F.J. Razkin Floresek, Rubiok.



Ergoiena. Ibarreko hirugarren emakumezko alkatea da Maria Soledad Mozo Galarza.



za Lazkoz hirugarrenez alkate aukeratu dute.



Urdiain. David Oroz Alonso hirugarren aldiz da alkate.



Olatzagutia. Joseba Vizuite Askargorta bigarren ez udal agintean izanen da.



Unai Hualde eta Eneka Maiz.

Bi sakandar Nafarroako Parlamentuan

Nafarroako Parlamentuaren XI. legegintzaldiari hasiera Ganbera osatzeko saioarekin hasi zen hilaren 16an. 50 forudunak (UPNko 15, PSNko 11, EH Bilduko 9, Geroa Bai 7, PPNko 3, Contigo-Zurekineko 3 eta Voxeko 2) estreinakoz elkartu ziren. Haien artean bi parlamentari sakandar zeuden: Unai Hualde Iglesias (Geroa Bai) altsasuarra eta Eneka Maiz Ulaiar (EH Bildu) etxarriarra. Maizen aukeraketarekin 1979tik dozena bat sakandar izan dira foru parlamentariak.

Aurreneko bilera horretan parlamentariaren lehen egitekoa izan zen heldu den lau urteetan erakundea gobernatuko duten Presidentea eta Mahaia hautatzea. Presidente kargurako bi hautagai izan ziren: Uhalde eta Iñaki Iriarte Lopez (UPN). Altsasuarrak aldeko 30 boto izan zituen, PSNren 11, EH Bilduren 9, Geroa Bairen 7, eta Contigo-Zurekinen 3. Hualde eta bigarren aldiz jarraian Parlamentuko presidentea izanen da, karguan errepikatzen duen lehena da altsasuarra.

Klinikak inbertsioetarako finantziazioa du

Eguneko zentroa handitu eta eraberritzeaz aparte ospitalea handituko ditu. Lanek 2,3 milioi euroko aurrekontua dute eta erakunde publiko eta finantzarioen babesa du. Inbertsioek 25 edo 30 lanpostu sorraraziko dituzte

ALTSASU

Sodenako kontseiluak Josefina Arregi klinika psikogeriatricoaren inbertsio planari finantza laguntza ematea onartu du. Plan horrek 2,3 milioi euro pasako inbertsioa eskatzen du. Nafarroako Gobernuak ez ezik, Elkargik, CaixaBankek eta Laboral Kutxak ere parte hartzen dute inbertsio plan horren finantza laguntzan. Aurreneko bi erakundeek %50ean hartuko dute parte erakunde abal emaille gisa, eta atzeneko biak, berriz, %50ean funtsak emanen dituzte.

Klinikako zuzendari gerenteak, Angel Gardachal Ausejok azaldu zuenez, "dagoeneko hasiak diren eguneko zentroa handitzeko eta eraberritzeko lanek 400.000 euroko (%15) aurrekontua dute". Lan horiek finantzatzeko crowdfunding kanpainan jasotako dirua eta Europako Next Generation funtsetik jasotako dirulaguntza erabiliko dute arduradunek. "Gainontzeko 1,8 milioi euroak (%80) ospitalerako da (proiektua, gauzatzea eta langileen lanbide heziketa). Gainera, 100 kW-eko aerotermia instalazioa ere jarriko dugu, 120.000 euroko aurrekontua duena".

Gardachalek jakinarazi zuenez, "aipatutako finantzaketa proiektutik kanpo, eta klinikaren 2019-



Klinikako eta finantziarioa bermatuko duten erakundeetako ordezkariak. UTZITAKOA

2023 Estrategia Planean hasitako jasangarritasunaren eta ingurumenaren hobekuntzaren aldeko apustu irmoan, egungo instalazio fotovoltaikoa handituko dugu; 40kwp izatetik 100kwp izatera pasako gara. Horrek gure energia sortzea ahalbidetuko du, sare elektrikoarekiko independentzia maila altua lortuz". Gerenteak azpimarratu zuenez, "obrak gauzatzean material ekologikoak eta passivhaus eraikuntza estandarra erabiltzea aurreikusi dugu".

Inbertsio proiektua gauzatzean, klinikako plantilla 25 edo 30 per-

sonatan handitzea aurreikusi dute, eta 2024ko uda baino lehen osatzea. Horrela, zentro psikogeriatrico 60 pertsonatik 85-90 langilera igaroko da, eta horietatik ia %100 osasun langileak izango dira, eta emakumeen enplegua guztizkoaren %90 izango dela aurreikusten da.

Klinikaren ospitalea handitzean hamar ohe gehiago izanen dira, 21 ohetik 31ra pasaz. Osasun Departamentuarekin ituna zabalteko konpromisoa lotua du klinikak, eta, horretan oinarritu da inbertsio plana.



Kofradeak batzartuta. UTZITAKOA

Kofradiak kide berriak egiten saiatzera animatu du

Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiak gaurtik etorkizuneko erreleboa landu nahi du

UHARTE ARAKIL

Deierrri etxeko bilera aretoan Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiaren batzarra egin zen igandean. Inocencio Aierbe Irañetak idatzitako estatutuei jarraituz, aurreko akta irakurri zuten lehenik. Diru kontuen berri eman eta urtean zehar egindako jardunen eta hobekuntza lanak eman eta batzarraren oniritzia jaso zuten. Gastuen artean Deierrri etxean kofradiaren egoitzako altzariak zeuden. Bilkurak balio izan zuen ere zuzendaritzako hiru kide berriri ongi etorria egiteko. Baita 1.800dik gora kofradeek urte ordaindu beharreko kuota zehazteko ere. Galde erantzunen txanda iritsi aurretik, zuzendaritzak gogorarazi zuen Europako San Migel toki eta bideen elkarreko kide dela kofradia eta lehen-dakariorde kargu bat duela.

Deierrri etxeko lanak despeditu berri zirela, eraikina jantzi gabe zegoela, egin zuten bilera joan zen urtean. Igandean, berriz, beharrezko altzari guztiekin hornituta zegoen eraikina eta "jendea pozik eta ilusioz zegoen. Azkenean, hainbeste amestutako egoitza dugu", azaldu du Jose Mari Ustarrozek. Eraikina bisi-tatu ondoren anaitasun bazkaria egin zuten santutegiko jatetxean.

Altsasuk badu estalpea

Astelehenean azken lan tresnak jaso zituzten langileek eta orduz geroztik erabilgarri dago Altsasuk estalpea. Guztira 730 m²-ko azalera du. Sabaian eguzki argia sartzeko zortzi argizulo borobil ditu. Horiek eta sabaian barna dauden beste borobil batzuek LED argiak dituzte, argiteria publikoarekin batera pizten direnak.






TXARTEL
Txarrela

Ekainaren 12tik aurrera
10.00 - 13.30
Astelehenean ostiralera



Udako ordutegia



Guardetxe berriak izanen duen itxura.

Guardetxea egiteko lanen deialdia egina

Aralar Elkarteko kideek ate ugari jo behar izan dituzte lanak emateko deialdia lehenbailehen egin zedin. Hamalau urte dira azpiegitura hori gabe. Bigarren fasean ostalaritza eta bestelako azpiegiturak hartuko dituen beste eraikin bat jasoko da

SAKANA

Azkenik, Nafarroako Gobernuak Aralarko guardetxea eraikitzeke lanak emateko deialdia egin du. "Ate asko jo behar izan ditugu. Jendea oso bero zegoen guardetxerik ez zegoelako. Lotura estua dago Lakuntzaren eta guardetxeren artean eta jendea mobilizatzeko prest zegoen", azaldu du Aralar Elkarteko presidente Patxi Xabier Razkin Sagastibelzak. Lehen fasean 81,5 m²-ko eraikina egingen da, basozainaren bulegoa eta gela, komuna eta turismo informazio bulegoa izanen duena. Lanek 385.208,21 euroko (BEZik gabe) aurrekontua dute eta eskaintza aurkeztu nahi duen enpresak garilaren 21eko 14:00ak arteko epea du. Lanak irailaren 18an hasi eta heldu den urteko azaroaren 30erako despedituta egon behar dute.

Razkinek azaldu duenez, "Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuak ez zuen nahikoa diru eta, horregatik, bi urtetan banatu dute lanak egiteko epea.

Hala ere, elurrik ez bada, lanak azkar egin daitezke". Razkinek gogorarazi du guardetxea egin da ere, bigarren fasea faltako litzatekeela. Bigarren eraikinean ostalaritza zerbitzua, bertako produktuen salmentarako espazioa, proiektio gela, komuna publikoak eta kudeatzailearen etxebizitza izanen lirateke. "Gobernu berria osatu arte itxarongo dugu eta, orduan, dagokion kontseilariari bilera eskatuko diogu horretaz hizketatzeko", aurreratu du Razkinek. Elkarteko presidente kargua Lakuntzako Udalarena da beti. Razkinek azaldu duenez, "asmoa da alkateak ardura nire esku uztea eta nik jarraitzea elkartean lan egiten".

"GUARDETHERIK EZ ZEGOELAKO JENDEA OSO BERO ZEGOEN, MOBILIZATZEKO PREST"

Atzera begira

Hamalau urte dira Aralarren guardetxerik ez dagoela. Nafarroako Gobernuak hura botatzeko erabakia hartu eta hala egin zuelako. 2009an ere foru administrazioak Aralarko Elkartearen baimenik gabe 206 zuhaitz bota zituen Aralarren. Hasiera batean zur horren zati bat guardetxe berriaren erabiltzeko zen. Horregatik, Aralar Elkartek guardetxea eta zerbitzu eraikina hartzen zituen proiektua egin zuen 2018an. Baina zur horren zati bat kanpoan egon da, gobernuaren Miluze lursailean, eta hondatuta dago. "Zerbait aprobetxatu daiteke, baina kanpoko hesiak eta egiteko" azaldu du Razkinek, gaineratuz, "barruan gordeak zeuden egurrezko forjatuak (Ollokiko Barbiur zerrategian) oinarri gisa erabilgarri dira". Nasuvinsa enpresa publikoko arkitekto batek Aralarko guardetxe proiektua guztiz eraberritu du, eta hori da egingen dena.

Egoitza berria egin du Mutua Navarrak Altsasun

la 300 metro karratuko egoitza berritzeko 1,1 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa egin du

ALTSASU

Iruñeko etorbidea utzi gabe, Mutua Navarrak bere Altsasuko egoitza kale horretako 20. zenbakitik 1era aldatu du. Ibeltzean hasitako lanak dagoeneko despiditu dituzte. Egoitza berriak bi mediku kontsulta, erizaintzako kontsulta bat, X izpien gune bat, punta puntako ekipoak dituen errehabilitazioko gimnasio bat eta mutuako langileendako eremu administratibo bat ditu. Enpresatik azaldu dutenez, lehendik daudenei mediku, erizain eta administrazioko langileei fisioterapeuta bat gehituko zaie.

Erakundeko zuzendari gerente Juan Manuel Gorostiagak nabarmendu duenez, "Altsasu eta Sakanako inguru guztia apustu garbia izan da beti erakundearendako, eta horren adibide da gure lehen egoitza 2007an ireki genuela, zerbitzua eskualdeko gure bazkideengana hurbilduz". Azaldu duenez, egoitza aldaketaren arrazoia da 15 urte baino gehiagotan erabili dutena txiki gelditu zitzaiela. Altsasuko egoitzako zuzendari Javier Morionesek esan duenez, "Mutua Navarratik gure enpresa elkartu guztiei laguntzen jarraitu nahi diegu bertako langileen lan osasunaren kudeaketan".

Industria garbiaren alde egin du Chivitek

Deskarbonizazio prozesuak indarrean jartzera animatu du Nafarroako presidentek

IRURTZUN

Hydrok joan zen astean jakinarazi zuen mundu mailako mugarrira jarri zuela: erregai gisa hidrogeno berdea erabiliz birziklatutako aluminiozko aurreneko lotea ekoizti zuela. Lorpenari ikusgarritasuna emateko, eta zoriontzeko, Nafarroako presidente Maria Chivite Navascuesek lantegia bisitatu zuen asteartean. Chivitek enpresako arduradunekin bildu ondoren, lantegia bisitatu zuen.

Presidenteak adierazi zuenez, "industriak energia guztiaren herena kontsumitzen du. Horregatik dira hain garrantzitsuak deskarbonizazio planak". Hydrok lortutakoa nabarmendu zuen. Nafarroako industriak erregai fosilak uztearen alde egindako apustua nabarmendu zuen Chivitek, "deskarbonizazioan pausoak ematera" animatu zuen. Aldi berean, azpimarratu zuenez, "Gobernuak, bigarren, industria deskarbonizatzeko laguntzak deitu ditu, klima aldaketaren erronka globalaren esparruan. Nafarroako industria aitzindaria izaten ari dela honetan, eta Hydro adibide onenetakoa da". Irurtzongo lorpenak "hidrogeno berdearen aldeko apustuan jarraituzera animatzen gaitu".





SAKANAKO ERRALDOIAK

Kolorertatu itzazu

28 orrialdetako liburuxka, ilustrazio eta azalpenekin

ESKUALDEKO
LIBURU-DENDA HAUETAN **SALGAI:**

IRURTZUN: ELUSTONDO ETA MARTXUETA

ETXARRI ARANATZ: KAXETA

ALTSASU: ARKATZ ETA LIBURUNDA

gik DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu
info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus



Markel eta bere familia helmugara iritsi ostean. ARTXIBOA

10 urtez Markelekin batera korrika

ATLETISMOA Ziordiko Lasterketak hamarkada bete du; ia 6000 euro jaso dituzte eta tonatik gora elikagai

Iñaki Rubio Mendoza ZIORDIA

Jada tradizio bilakatu den Ziordiko Lasterketa Solidarioa antolatatu zuten Ziordia Running taldeak eta herri horretako Udalak, iragan larunbatean, ekainaren 17an. Aurten X. edizioa izan du arineketa eta jende andana batu da, eguraldiaren gogoz bestera. Izan ere, euri jasak ez zuen atsendenik eman, eta lasterketak ere batu behar izan zituzten.

Hain zuzen ere, 2,4 kilometroko martxa 17:30ean zen egitekoa, baina trumoi eta zaparraden kariaz, 6,8 kilometroko proba nagusiarekin batera egin zuten, 18:00an. Txikienen lasterketa, ordea, bere horretan mantendu zuten, adin tartekako proba txikiak eginez. 333 lasterkari aritu ziren Ziorditik gora behera; 145 frogia nagusian, 65 martxan eta 123 haur motzengan.

Aurten lasterketak KM X ELA eta Aurrera Markelekin elkartek lagundu ditu, Dravet Fundazioarekin eta Espainiako Rett Sindromearen Elkartearekin batera. Gainera, tonatik gorako janari biltzea egin zuten, Paris 365 Jan-toki Sozialarendako. Hori gutxi ez, eta 5583 euro bildu zituzten Markel Carmona urnietarraren egunerokoa errazte aldera, izan ere, gen baten mutazioak eragindako gaitz degeneratibo arraro bat du 17 urteko gazteak.

Egiakzi, lasterketa bereziak amaiera berezia izan zuen, eta Alberto Diazek eta Mikel Aca-rretak eskutik heldurik zeharkatu zuten helmuga, izaera ez lehiakorra izan arren, lehenen-

go postua eskuratuz. Emakume azkarrena Diana Vecillas izan zen. Sari gisa, kutxa bete produktu lokal jaso zuten.

Elkartasuna mugaz gaindi

Oso kontent azaldu da Lasterketaren hauspo den Jose Ramon Ramirez ziordiarra: "Geroz eta jende gehiago gerturatzeko da, eta oihartzuna ere zabalagoa da; sare sozialei esker munduko hainbat txokotara iritsi gara".

Izan ere, herrialde askotariko lasterkariak heldu ziren, Madrildik besteak beste. Pablo Carmeno eta bere taldeak, Drinking Runners, 10 urte daramatzate bertan parte hartzen. Izaera solidarioa duen taldea da, eta lasterketa guztietan arrazoi ezberdinetarako dirua eta elikagaiak biltzen dituzte. "Ziordikoa da lasterketa solidarioa hobereena; ehuneko ehunetan solidarioa da, eta inoiz galtzen ez dugun zita da hori".

Zozketa solidarioa ere egin zuten: "Txekiar Errepublikan eta Belgikan erosi dizkigute boletu batzuk", azaldu du Ramirezek. 170 sari banatu zituzten, besteak beste, Gorka Izagirreraren Movistar taldeko maillota.

Alabaina, Jose Ramonek beste hainbat zita solidario prestatzen ditu urtean zehar, esaterako, ekainaren 4an Futbol Torneo Solidarioa antolatu zuen Ziordia Running taldearekin batera. "Ikaragarria izan da. Azken bi asteetako hitzorduetan 12000 eurotik gora bildu ditugu".

Bizikletak lapurtu dizkiote Euskaltel taldeari, Eslovenian

TXIRRINDULARITZA Budapest aldean agertu omen da bizikletak zeramatzan taldearen autoa; polizia ikertzen ari da oraindik

ZIORDIA

Euskaltel-Euskadik Esloveniako Itzulia utzi behar izan du, taldearen furgoneta lapurtu eta bertan zeuden 14 bizikleta eraman ostean. Lapurreta pasaden larunbatetik iganderako gauean izan zen, taldeak bertan hartu zuen hotelean.

Azken etapa zuten jokatzekoa Euskalteko 7 txirrindulariek, eta ezin izan zuten irteera hartu, halaberretz etxera itzuliz. Taldearen zuzendaritzak dagokion salaketa jarri du agintarien aurrean, eta, orain, material guztia

aurkitzeko herritarren laguntzan konfiantza du. "Esan digute autoa Budapest aldean agertu dela, baina ez dakigu txirrindulak bertan dauden edo ez", esan du Euskaltel-Euskadiko zuzendari Jorge Azanzak.

Halaber, asteburu honetan da jokatzekoa Espainiako Txapelketa, eta txirrindulariak bizikletarik gabe daudela salatu du sakandarrak: "Espainiako txapelketak ditugu asteburu honetan eta txirrindulariak bizikletarik gabe ditugu; etxean dituztenekin moldatu beharko dute".



Asier Beltza. UTZITAKOIA

"Nafarroako Txapelketa eginen da eta pozik gaude"

MENDI LASTERKETA

Ingurumena babestea helburu duen Etiketa Berdea proiektuan parte hartuko du Triku Trailek

ETXARRI ARANATZ

Zenbat lasterkari espero dituzue?

280 bat pertsona edo. Iaz justu ibili ginen, eta poztekoa da aurtengoa. Nabaritu da Nafarroako Txapelketa jokatu dela bertan. Gainera, eguraldia lagun izanen dugu.

Nobedaderik egonen da aurtentzen?

Etiketa Berdea ekimenean hartuko dugu parte, ingurumena zaintzeko konpromisoa hartu eta neurriak aplikatzea helburu duen Euskal Herriko lasterketen itun moduko bat da. Zirkuituari dagokionez, 21 kilometrora iristeko hainbat hobekuntza egin ditugu, aurreko urteetan ozta-ozta iristen baikin.

Boluntario asko bildu dituzue?

120 inguru. Beraiei esker da posible Triku Trail. Gainera, herriko jendea ez ezik, etxarriarrak ez diren asko arituko dira.

Euskal Herrikan kanpoko jendeak parte hartzen du?

Bai. Madrildik, Errioxatik... jende asko hurbiltzen da. Aipatzekoa da Etxarriko jendea geroz eta gehiago animatzen dela, hasieran hiruzpalau besterik ez baitziren.

Dani Saldise Xotara itzuliko da, Championsa irabazi ostean


ARETO FUTBOLA Xotak jokalaria irurtzundarraren itzulia berretsi du; datozen bi denboralditan ariko da

Iñaki Rubio Mendoza IRURTZUN

Dani Saldise irurtzundarra etxera itzuliko da, Osasuna Magna Xotara, Mallorca Palma Futsal taldearekin Europako Championsa irabazi ostean. Futbolaria itzulera sinatu du jada, eta datorren denboralditan ariko da kolore berdea barrutik defendatzen.

2020ean utzi zuen Xota, Movistar Inter-era joateko eta, bertan, Espainiako Superkopa eskuratu zuen, baita Espainiako Kopa eta Errege Kopa ere. Torrejon de Ardoz taldean bi denboraldi egin

ostean, Mallorca Palma Futsal-ekin sinatu zuen denboraldi hasieran, eta UEFA Futsal Champions League trofeo bereganatu du berriki talde horrekin.



Espainiako Koparekin. UTZITAKOIA

TXIRRINDULARITZA Iker Gomez, lehen nafarra Nafarroako Klasikoan

Junior mailako Iker Gomez (Que- sos Albeniz) altsasuarra lehenengo nafarra izan da Nafarroako Klasikoan. Villatuertan jokatu zen II. edizioa, ekainaren 18an. Lagarrena izan zen sailkapen orokorrean (2h44'59, +1'36), eta meta bolantetan garaipena eskuratu zuen. Mikel Regil Fernandez (Sakana Group-Alea) bigarren nafarra izan zen helmuga erdiesten.



Iker Gomez, podiumean. KLASIKOIA

"Gogorra da triatleta izatea; bokazioa izan behar da"

INES MORENO SANCHEZ TRIATLETA

TRIAATLOIA Bizikletaren aulkia zabalegia izateak lesioa eragin dio, eta bi hilabete eman ditu lehiatu gabe. Espero du laster bueltan izatea; Gasteizko Iron Man erdia du helburu

Iñaki Rubio Mendoza ALTSASU

Kirola eginez hazi eta hezi da Ines Moreno altsasuarra, abiadura irristaketan lehenengo eta atletismoan ondoren. Gasteiza joan zen ikasketak burutzera eta han ezagutu zuen bere bokazioa; triatloia, naiz eta duatloia ere gogoko duen. Ordu asko eskaintzen dizkio kirolari, eta horren fruituak agerikoak dira. Iaz, Euskadiko Triatloi Txapelduna izan zen Lekeition eta, gaur-gaurkoz, Arabako emakume txapeldun absolutua da. Lehiatzea baino gozatzea du xede, eta horretan segituko duela dudarik ez du. **Irristaketan hasi zinen eta ordutik ez zara geldirik egon.**

Oso gazte nintzela hasi nintzen abiadura irristaketan, Sakanako taldean. Orain Sakana Irristaketa Taldea du izena. Ondoren Iruñera joan ginen taldeko hiruzpalau lagun, hemen jada ez genuelako toki nahikorik entrenatzeko. Bi urtez egon nintzen bertan, eta ondoren IVEF kirol gradua ikastera joan nintzen Gasteiza, eta bertan triatloia ezagutu nuen bertatik bertara. **Zergatik utzi zenuen irristaketa?** Iruñera joan ginenean ondo hasi ginen; leku gehiago genuen entrenatzeko. Ordea, ez nintzen ondoegi moldatu entrenatzailearekin eta utzi egin behar izan nuen. Hilabete batzuetara, Gasteiza joandakoan, kirola egiten hasi nintzen berriz ere, baina serioegi hartu gabe. Orduan kon-

turatu nintzen ikaragarri gogoko nuela kirola, eta izandako esperientzia txar batengatik ezin nuela hainbeste maite nuen zer-bait alde batera utzi. Beraz, kirola serioki egitea erabaki nuen.

Zergatik triatloia?

Kasualidadez izan zen. Txirrindularitza deigarria zitzaidan, baina Gasteizen ez zen batera entrenatzen zuen talde femeni-norik, eta nik taldea nahi nuen eta ez nire kontu aritu. Nereak ere hala pentsatzen zuen, eta elkarrekin hasi ginen triatloietan.

Zein kirolekin hasi zinen entrenatzen?

Lehenik korrika eta igerika hasi ginen, txirrindula aproposik ez baikenuen. Lasai-lasai ekin genion. Bi hilabetera erosi genuen bizikleta. Beraz, astean lautan entrenatzen hasi ginen; bi egun igeri, bat korrika eta beste bat bizikletan. Dena den, igerilari kaxkarragoa naiz.

Duatloia edo triatloia nahiago?

Egia da korrikan eta bizikletan arinago nabilela, erosoago, baina diziplina gisa triatloia nahiago dut, dibertigarriagoa da. Ordea, duatloia ere atsegin dut hobeto moldatzen naizelako. Ez dakit, bakoitzak badu bere one-

"KASUALIDADEZ HASI NINTZEN TRIATLOIETAN; GRADUO LAGUN BATI ESKER IZAN ZEN"

na. Hori bai, duatloia gogorragoa da; korrika egiten hasten zara eta bizikleta hartu orduko neka-neka eginda zaude. Triatloietan, aldiz, igeri eginez hastea ez da hain gogorra muskularki, beraz datozen bi modalitateetan arinago ibiltzen naiz. Denetarik egin dut egia esan; krossak, trailak... Triatletatza dut nire burua, nolana ere.

Entrenamenduetan, denbora berdina eskaintzen diozu diziplina bakoitzari?

Helburuaren arabera da hori. Esaterako, gabonak baino lehen egiten den Gasteizko maratoi erdia korritu nuen iaz, beraz, irailetik aurrera korri egiteari eman nion lehentasuna. Noski, ez nuen hori eskusiboki egin, bizikletan eta igerian ere ibili nintzen, baina kilometro eta ordu gutxiago eskaintzen dizkiezu.

Asfaltoa, pista edo mendia nahiago?

Mendia nahiago dut, baina triatloi zein duatloiak nahiko lauak izaten dira, beraz ez gara mendian sartzen entrenamenduetan. Aurrendenbaldian indarra ematen dizu mendiak, baina serieak egin eta azkar joateko lurzoru laua behar dugu. Pistan ez gara inoiz ibiltzen, asfaltoa da behar duguna.

Ohitu beharra dago triatletaren bizimodura?

Bai, baina bokazioa da gakoa. Gustatzen bazaizu egin behar duzu, ordu asko baitira azken finean. Ezagutzen dut jendea



Ines Moreno Sanchez, korrika. JKBIKEN

gogorik gabe heltzen dena entrenamenduetara eta ez dut ulertzen zergatik jarraitzen duten. Niri asko gustatzen zait, baina egia da gogorra dela. Entrenatzea gutxienekoa da; lagunekin egoteko kasik ez dut denborarik, eta elikagaiekin ere kasu; triatletok kaloria asko erretzen ditugu beraz dietak ez dira oso zorrotzak, asko eta denetarik jan behar baitugu, baina noski ezin da edozer gauza ahoratu, alkohola esaterako. Azukrea ere ezin dugu nahi adina jan.

Nolakoa da zure egunerokoa?

Egun, esnatu, ondo gosalduta eta entrenamenduari ekiten diot; ondoren bazkaldu eta berriz ere entrenatzera, arratsaldean lan egiten badut, bigarren entrenamendu hori goizean ere egiten dut. Ariketak helburuaren arabera dira, noski; txirrindulari, korrika edo igeriketa, horietako bat, bi edo hirurak.

Lasterketa garrantzitsu bat hurbil denean, errutina hori aldatu egiten da?

"DUATLOIETAN HOBETO MOLDATZEN NAIZ; TRIATLOIAK DIBERTIGARRIAGOAK DIRA ORDEA"

Lasterketa arrunta bada errutinak bere horretan darrai, baina garrantzia badu bi aste lehenago hasten dira prestaketak; denbora gutxiago entrenatzen dut, intentsitate handiagoz. Dietari dagokionez, lasterketa luzea bada hiru egun lehenago hasi ohi naiz karbohidrato gehiago jaten; kontrara, motza bada, egun bat lehenago hartzen dut karbohidrato kopuru dezentea.

Talderen batean zabilta?

Araba Tri triatloi taldean hasi nintzen. Egun, talde hori Lea La Blanca atletismo taldearen parte da eta bertako kide gara, baina finean taldea berdina da. Gasteiza heldu nintzenetik nago bertan.

Duela urtebete Euskadiko txapela irabazi zenuen Lekeition, triatloi sprint kategorian.

Hala da, modalitate azkarra da sprint-a. Ez nuen inola ere espero. 15. atera nintzen itsasotik, igeri egitea baita nire ahulgunea, baina lasai-lasai hartu nuen, bizikleta hartu eta pixkanaka aurreratzen hasi nintzen. Bigarren trantsiziora heldu nintzenean (kirol batetik bestera egiten den aldaketa eremu edota denbora tartea), ibilgailua utzi eta korri egiten hasi nintzen ziztu bizian. Bapatean megafoniatik entzun nuen aurrean nuen neska eta



Moreno, Euskadiko Txapelketako metan. JKBIKEN

biok 2. postua lortzeko lehia bizian genbiltzala; bi minutura zegoen, eskapo eginda, eta 5km geratzen ziren lasterketa amaitzeko. Denbora banuen, beraz azkarrago hasi nintzen, bigarren postu hori konkistatzeko, baina abiada hartu eta lehena zihoan neska ere aurreratu nuen, Euskadiko Txapelketa irabaziz.

Ateak ireki dizkizu hori irabazteak?

Bai. Euskadiko Txapelketa irabazi nuenean triatloi eskola bat jarri zen nirekin harremanetan, eta esan ea prest nengokeen bertan entrenatzaile gisa aritzeko. 10 eta 18 urte arteko haur eta gazteak prestatzen ditut bertan, mailaren arabera hiru taldetan. Batzuk aisialdi gisa hartzen dute, eta beste asko txapelketetarako prestatzera doaz. Denek ala denek, ostera, kirolaz aisialdia egitea dute helburu.

Duatloietan Euskadiko txapeldu-nordea ere izan zara berriki.

Duela hilabete izan zen, Zizurkilen. Egia da irabaztea espero nuela, asko entrenatu bainuen. Lesionaturik nago eta horrek ez zuen batere lagundu. Korrika egiterakoan gorputza mindurik sentitu nuen; bizikletan erosoago aritu nintzen. Horixe izan da egin dudana azken txapelketa. Dena den, bigarren postu hori poztekoa da.

Nola egin zenuen lesioa?

Bizikletetako zelak ez daude emakumeondako eginak, oro har, eta zoru pelbikoa lesionatzen dugu horrela. Guretako aproposak diren aulkia behar ditugu. Orain hilabete batzuk aldatzea erabaki nuen, min hori ekidite aldera, eta, hara non, lesioa eragin dit aulki berriak. Zabalegia zen antza, iskiotibialen eta iskiotien arteko inserzioa zanpatu nuen, ipurdian dauden hezur horiek, tendinitis bilaterala eraginez. Espero dut aste batzuetan guztiz osatzea, hilabete egon bainaiz korrika aritu gabe.

Hori gutxi ez eta Arabako txapel-duna zara emakumeen kategorian absolutuan.

Aurten liga berria egin dugu, eta Arabako txapelketa guztietarako puntuatzen dugu. Duatloi sprintean, distantzia motzean, Arabako lehena izan nintzen, baita olinpikoan (sprintaren bikoitza) ere. Distantzia luzean, Zuian, Arabako txapel-duna izan nintzen, hortaz, hirurak irabazita Ara-

"MENDIA NAHIAGO DUT, INDARRA EMATEN DIZU, BAINA GUK ASFALTOA BEHAR DUGU"

bako txapelduna naiz, emakumeen kategorian orokorrean, hau da, absolutuan.

Lesioaz gain, denboraldi ona egin duzu?

Tira... ez oso ondo. Pasaden urtean hain ondo ibili eta gero... Duatloietan ondo hasi nintzen, eta triatloien denboraldia mustu orduko, lesionatuta. Orain arteko helburuak bete ditut, baina pena handia da hain goiz bukatzea. Kirolarien bizitza halakoa da, atletismoan daramatzadan bost urteetan ez dut sekula lesiorik izan, noiz bait iritsi behar zen.

Espainiako Txapelketara joanen zara?

Duela bi urte izan nintzen, Avilesen, eta 40. postua eskuratu nuen. Esperientzia polita izan zen, baina nahiago dut Euskal Herrian lehiatu, presioa eta denbora eskuragarriagoak baitira. Uste dut maila dudala, baina ez da niretako. Gainera, aurrerantzean, distantzia luzeagoetan arituko naizela uste dut. Nahia-gu dut disfrutatu lehiatu baino.

Datorren denboraldirako helbururik baduzu?

Legutio da nire hurrengo erronka, uztailearen 8an. Bi aste gelditzen dira eta espero dut ordurako lesioa guztiz osatzea. Duatloiak otsaila aldera hasten dira eta



Euskadiko Txapelketan, bizikletan. JKBIKEN



Euskadiko Txapelketan, helmugara iristear. JKBIKEN



Euskadiko Txapelketan, itsasotik irteten. JKBIKEN

triatloiak apirila edota maiatzean, baina urrian Gasteizko duatloia egiten da, eta bertan izanen naiz. Gasteizko half-a ere egingen dut; 70 bat kilometroko Iron Man erdia.

Sakanako zein lasterketa duzu gogokoen?

Arbizuko duatloia dudarik gabe. Oso polita da eta Altsasukoa baino luzeagoa da. Lizarragako

"BIZIKLETETAKO AULKIAK EZ DAUDE EMAKUMEONDAKO EGINAK"

portuan asko ibiltzen naiz bizikletaz, eta asko kontrolatzen dut. Gogorra da, eta nik hori biziki atsegin dut.

Nola ikusten duzu zure etorkizuna kirol honetan?

Kirol honetan, beste askotan bezala, ez dago dirurik. Oso zaila da bizitza ateratzea soilik kirola eginez. Nik disfrutatzea-gatik egiten dut. Gradua amaitu eta hezkuntzan sartzeko masterra egin berri dut, beraz irakasle izanen naiz; arratsaldetan entrenatzen jarraituko dut eta distantzia luzean arituko naiz duatloi zein triatloietan. Gustura arituko naizela uste dut.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 23

IRURTZUN Kontzertua.

Irurtzuno musika eskolako ikasleekin dantzaldia.

19:00etan, pilotaleku irekian.

LARUNBATA 24

IRURTZUN Topaketa.

Espazibiker motorzaleen elkartean hamalagarren urteurren topaketa.

09:00 Izen ematea.

10:30 Motorrekin ibilbidea eta hamaiketako (6 euro).

14:30 Bazkaria, Matxain jatetxean (ibilbidea, hamaiketako eta bazkaria, 20 euro; bazkaria, 10 euro).


18:00 Kontzertua, zozketak eta motor jolasak.

IGANDEA 25

ETXARRI ARANATZ Mendi lasterketa.

Triku Trail mendi lasterketa, Triku Trail taldeak antolatuta. 21 km eta 1.300 metroko desnibela. Mendi Lasterketen Nafarroako klubaren arteko txapelketaren barruan.

ZORION AGURRAK



Maddi Miranda Ganuza

Zorionak etxeko prinxeza zu 6. urtebetetziari! Askok nehi zeittugu! Añiaña ta izeba



09:30ean, kanpinetik.

IRURTZUN Kontzertua.

Pablo Lobo y la Banda Bandolera taldearen kontzertua, *Musika parkean* zikloaren barruan.

20:00etan, Gernika plazan.

ASTELEHENA 26

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde.

12:00etan, udaletxearen parean.

ASTEARTEA 27

LAKUNTZA Elkarretaratzea.

Stop AHT Zundaketak. Sakana Bizirik elkarretaratzea, Sakana Trenaren Alde, AHT Gelditu!, Otsotarrak eta Sustrai eraikuntza elkarteek deituta.

19:00etan, plazan.

OSTEGUNA 29

IRAÑETA Txirrindulari martxa solidarioa.

Noelia Fundazioaren aldeko txirrindulari martxa solidarioaren lehenengo etapa herrikoia: Irañeta – Bidaurreta (32 km).

16:30 Aurkezpena.

17:00 Martxaren irteera.
20:00 Bidaurreta iristea eta ekimenak.

IRURTZUN Kontzertua.

Abian taldearen kontzertua.

20:00etan, Pikuxar plazan.

OSTIRALA 30

IRURTZUN Kontzertua.

Mielotxin taldearen kontzertua, Musika parkean zikloaren barruan.

20:00etan, Gernika plazan.

ZIORDIA Kontzertua.

Gussy abeslariaren kontzertua. Abesti propioak eta bertsoak.

20:30ean, Etxaleku tabernan.

OLATZAGUTIA Kontzertua.


Moises no duerme Live Band taldearen kontzertua, Kultur zikloaren barruan.

22:00etan, eskoletako frontoian.



UTZITAKOIA

IRURTZUN Ricardo Azkargorta artistaren *Bertatik Bertara* margolan erakusketa. Uztailaren 18ra arte. Pikuxarren.



ARTXIBOA

ALTSASU Itziar Nazabal arte tailerraren ikasleen lanen erakusketa.

Ekainaren 25era arte. Iortia kultur gunean.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

ALOKAGAI

Altsasun Coworking bulegoa autonomo eta urruneko langileentzat: Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatze bulego; Wifi, imprimagailua, berogailua, komuna eta officea ditugu. Aukera paregabea! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

LAN ESKAINTZAK

Arakilgo Udalak udarako aisialdi campuserako begiraleen lan poltsa osatu nahi du: Deialdian interesa duenak arakilkultura@gmail.com postara curriculumak bidali behar du. Derrigorrezkoak dira Euskara B2 maila izatea, DBH edo balioak diren ikasketak eta aisialdi begirale titulua izatea.

Lakuntzako Udalak igeriketa irakaslea kontratatu nahi du: EGA (edo balioak) eta sorosle titulazioak eskatzen dira. Curriculum eta titulazioen egiaztagiriak udaletxean aurkeztu hilaren 27a baino lehen.

Ergoienako Udalak udarako aisialdi begirale bila dabil: Interesa duenak bere curriculuma info@ergoiena.eus posta elektronikora bidali behar du. Lanaldia uztailaren 17tik abuztuaren 11ra izanen da.

SALGAI

MUSIKA

Piano elektrikoak salgai: 400euro. Interesa baduzu deitu 628 894 409 telefonora

LEHIAKETAK

Zurumurruren kontrako ipuin laburren IV. Lehiaketa: Aniztasunean elkarbizitza sustatuko duen istorioa sortu eta lehiaketan parte hartzea gonbidatuta dago Mank-en Aniztasunean zerbitzuaren eskutik. Bidali zure ipuina aniztasunean@gmail.com helbide elektronikora ekainaren 30a baino lehen. Zalantzak edo galderak 648 070 710 telefonora deituz.

Lakuntzako festetako kartel lehiaketa zabalik: Testua "Lakuntzako jaiak 2023. Abuztuaren 26tik 31ra", adinaren arabera kategoriatan eta sari ezberdinak daude. Oinarriak osorik www.lakuntza.eus web orrian ikusgai. Kartelak aurkezteko epea ekainaren 30ean, eguerdiko 14:00etan amaitzen da.

IKASTAROA

Lakuntzan igeriketa ikastaroak: garilaren 3tik 28ra izanen dira. Izena eman nahi duenak www.lakuntza.eus web orrian dagoen eskabide orria bete behar du. Izena emateko epea ekainaren 27an amaitzen da.

OHARRAK

Arakilen haurrendako udako aisialdi campusean izen ematea zabalik: Bi hamabostaldiko eskaintza prestatu du udalak, uztailaren 17tik 28ra eta uztailaren 21tik abuztuaren 11ra. Astegunetan, 10:00etatik 13:00etara. Izena emateko www.arakil.eus web orrian dagoen galdeztia bete behar da. Plaza mugatuak direnez Arakilen erroldatutakoek lehenetsuna izango dute. Izena emateko epea ekainaren 30ean amaitzen da. Informazio gehiago 634 584 226 (Whatsapean), 948 500 101 (telefonoan) edo arakilkultura@gmail.com helbidera idatziz.

Lakuntzako jaietan haurrei zapi banaketa: 2022an jaiotako Lakuntzan erroldatuta ez dauden haurrek jaietan zapi jaso nahi badute udaletxean izena eman behar dute uztailaren 21a baino lehen.

Olazitiko festetan haurrei zapi jasotzeko izen ematea zabalik: 2022 urtean jaiotako haurrek jaietan zapi jaso nahi badute familiak udaletxean izena eman behar dute garilaren 10a baino lehen.

Uharteko Arakilgo igerileku sasoia: ekainaren 16tik irailaren 17ra egonen dira zabalik, 11:00etatik 20:00etara. Gogorazi dute bainatzeko txanoa erabiltzea derrigorrezko dela. Txartelak udalean eskuratu daitezke, astegunetan 10:00etatik 14:00etara. Aurretik herriko banketxeetan or-

daindu beharrekia pagatua izan behar da. Prezio ezberdinak daude, informazio gehiago udaletxean edo www.uhartearakil.com web orrian.

Udako Sakanako Mintzakide taldeak: Etxarri Aranatz asteen behin, bazkalondoren Xapatero tabernan, Altsasun asteen behin goizetan eta beste herrietan herriz herri (astero leku batean). Zatoz gurekin dohainik! Izena emateko whatsapp bidaia 600 482 024 telefonora.

Lakuntzako igerilekurako txartelak eskuragarri: Ekainaren 18an zabalduko diren igerilekuetarako txartelak eskuragarri daude udaletxean. Prezio ezberdinak adinaren arabera www.lakuntza.eus web orrian ikusgai, interesa duenak udaletxean egin dezake ordainketa bankuko txartelaren bidez edo urretik kutxan ordainketa egin eta ziurtagiriarekin udaletxera joan.

Aralar aingeruari haurrak aurkeztea: Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiak Aralarko Aingeruari Haurren Aurkezpena antolatuta du. 18. edizioa uztailaren 23an izanen da. Aldez aurretik izena ematen dutenek elizkizunaren ondoren umeen izen-abizenak grafia ederrez idatzitako pergaminoa jasoko dute. Horretarako, santutegiko sakristian edo dendan eman behar da izena

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

Er **iti** aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es



Ez bota etxea leihotik!

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Eroaketa Irurtzunen

ESKELA



Iñaki Alava Barrena

Bihotz garbia
bakea etorri zen zure bila
askatasunez joan zintezan

Etxekoak

ESKELA



Iñaki Alava Barrena

Ezerezean sartu eta bertan disolbatuko naiz
Iñaki, beti izango zara gure gogoan

Zure lagunak

OROIGARRIA



Juan Cruz Larrea Rubio
X.urteurrena

Zure irrifarra gure artean dago beti

**Josune, Itsaso eta Oihan,
Josune eta Xabier eta Izaro biloba**
Altsasu

OROIGARRIA



Aitzarte Barandiaran Garcia
III.urteurrena

Ez adiorik gurekin gelditzen zara
Beti izango zara gure bihotzetan

Maite zaitugu

Leire eta zure seme Oihan

OROIGARRIA



Aitzarte Barandiaran Garcia
III.urteurrena
(Ekainaren 21ean)

Zeruan distira gehien egiten duen izarra zara.
Beti zaude maite eta faltan botatzen zaitugunon buruetan eta bihotzetan.
Beti egongo zara gurekin
Maite zaitugu

Etxekoak

OROIGARRIA



Raul Andres Cuesta
IV.urteurrena
(2019ko ekainaren 25ean hil zen)

Haizeari esango diot aurkitzen zaren lekura arte belarrira xuxurla zaitzala ez zaitudala inoiz ahaztuko

Maite zaitut

Ainhoa



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN

Izarra, Nafarroako tanatorioa
Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI-ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

JAIOTZAK

- **Enai Mauduit Recalde**, ekainaren 15ean Irurtzunen.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA.
AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

HERIOTZAK

- **Juanfran Ansotegi Lizarraga**, ekainaren 10ean Etxarri Aranatzen
- **Teodora Riezu Labat**, ekainaren 15ean Altsasun

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
 📍 @Grupolrache
 📺 Grupolrache
 🌐 www.tanatoriosirache.es

"Lan polita eta eskertua da; bere gauzak ere ditu, noski"

PATXI MIKEO ARIZTIMUÑO KULTUR ETA KIROL TEKNIKARIA

Hiru hamarkadaz Irurtzongo kultura, kirol eta, orokorrean, aisialdiaren kudeatzailea. Ekainaren 30ean izanen du kultur etxeko bulegoan azkeneko eguna

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

Lekunberritik iritsi zen duela 30 bat urte Patxi Mikeo Ariztimuño Irurtzongo kultur etxera. Hiru hamarkadaz kultur eta kirol teknikaria izan da. Ekainaren 30ean izanen da bere azken lan eguna, jubilatzen baita. "Luzea" egiten ari zaio isilean eta oharkabean joan nahi zuelako, "baina ez da posible izan". Irurtzunen dagoen kultur asoziatiboa eta parte hartzea lagun izan ditu ibilbidean, eta maiatzaren 19an herriaren esker ona jaso zuen. Datorren urterako ez du ezer buruan, "nire burua kokatu behar dut".

Noiztik zara Irurtzongo kultur eta kirol teknikaria?

1992ko urtariletik. Irurtzongo Udalak oposizio lehiaketa atera zuen. Kultur teknikari bezala hasi nintzen, lan jardunaldi erdia, eta gero kirolak ere hartu nitzakeela ikusi nuen eta jardunaldi osoan hasi nintzen.

Zergatik eman zenuen izena oposizio horretan?

Magisteritza ikasi nuen eta oso gaztetik boluntariotza taldeetan egon naiz, gehienbat Lekunberrin eta aspektu askotan kultur gaiak eramaten. Ikusten nuen arlo soziokulturak erakartzen ninduela, nire DNAn zegoela. Orduan bizitzaren gorabeherak direla eta ez nituen magisteritza oposizioak atera eta Lekunberriko enpresa pribatu batean hasi nintzen eta zazpi urtez ber-

tan egon nintzen. Enpresak ez zuen aurrera egin eta euskara ikasten hasi nintzen, Paz de Ziganda ikastolan Hezkuntza Departamentuaren bidez eskolaz kanpoko ikastaroak ematen egon nintzen, Larraungo Udalean kirol teknikari urte batez izan nintzen, Irurtzongo plaza atera zen arte. Garai horretan Luis Mari Viñasek administrazioa lan egiten zuen eta berari esker eta herriko kolektiboek eskera kultur teknikari plaza atera beha zela pentsatu zuten. Berak ez zuen plaza aukeratu nahi izan eta publikoa atera zen. Luis Mari bultzatzaile bat izan zen, hori nintzenez berak asko lagundu ninduen. Zoritxarrez hil zen. Horrelakoak izan ziren nire hasierak.

Zureak eta kultur zerbitzuarenak, ezta?

"ANIMAZIO SOZIOKULTURALA DEITZEN NINDUELA IKUSTEN NUEN; DNA-N NERAMAN"

"EKARTZEN DUDAN GUZTIA AURRETIK IKUSTEN SAIAZTEN NAIZ; PUBLIKOAREN GUSTUKOA IZATEKO"

Bai. Irurtzun betidanik tradizio asoziatibo handiko herria izan da. Hasieratik ikusi nuen hori oso ezarrita zegoela. Kultur koordinadora bat zegoen, gerora kultur batzordean bihurtu zena, eta bertan kultur kolektibo guztiek eta udalak parte hartzen zuen. Hori guztia koordinatzeko eta kultur etxea kudeatzeko pertsona bat behar zen.

Nolakoak izan ziren hasierak?

Ez ziren errazak izan. Kanpotik nentorren eta jendeak ez ninduen ezagutzen. Egia da lehen oposizio probak desberdinak zirela eta proiektu bat aurkeztu behar genuela. Zortea izan nuen proiektu hori kolektiboekin prestatu nuelako eta plaza atera nuenean ezagutzen ninduten. Baina hasiera guztiak bezala zaila izan zen. Azkenean, ni bakarrik nengo. Zerbitzua prestatu behar izan nuen, eta pixkanaka joan nintzen zerbitzua sortzen, eta beharrak sortzen.

Jendeak teknikariaren lana ezagutzen du?

Jendeak esaten dit: Zer lan polita duzun! Egia esan, bai; oso lan eskertua da. Oso eskertua eta polita da. Baina jendea ez da konturatzen atzean duen guztiaz. Adibidez, antzezlan bat edo ekimen bat ekarri aurretik aukera badut ni saiatzen naiz aurretik ikusten. Horrela ikusi dezakezu zure publikorako, Irurtzongo publikorako, den. Horrekin lotuta beste gauza asko ere: musi-

ka emanaldi bat, egurrezko herri jolasak... Nire akatsa eta aldi berea bertute handiena da denbora galtzea gauzak ikustera joateko hona ekarri aurretik. Dena ezin dut ikusi, baina saiatzen naiz. Hemen ere espazioak kudeatzen ditut, herri txiki bat da eta udalak esfortzu handia egiten du kultur eta kirol teknikaria izaten, eta azkenean denetarik egiten dut. Beste toki batzuetan teknikari bat dute, administrazioko bat, areto teknikari bat... Hemen lan horiek pertsona batean biltzen dira. Azkenaldian areto teknikaritzan eta administrazioan laguntza dut. Hemendik aurrera zer gertatuko den eta faltan botako nautela mezuak jaso izan ditut, baina beste pertsona bat etorriko da eta ez naute faltan botako; desberdina izango da, baina ohituko gara. Beraz, polita dela diote eta bai, bada; baina batzuetan bere arazoak ditu, etxera eramaten dituzu, edozein lanetan bezala. Batzuetan ezin duzu deskonektatu. Nire izaeragatik akats hori ere badut, bulegotik ateratzen naizenean buruari bueltak ematen jarraitzen dudala.

Zein da kultur teknikari baten lana? Nola sortzen dituzu programazioak?

Nafarroako Gobernuaren zirkuitu batzuen parte gara, Arte eta kultura, Udal platea, Euskarabidea... Proposamen asko iristen zaizkigu. Lehen postaz iristen ziren eta gaur egun Internet bidez. Gurean jotzeko interesa

duen taldeen dei asko jasotzen ditugu ere, geroz eta dei gutxiago, baina harrigarria da: antzerki taldeak, musika taldeak eta abar. Lehenengo gauza da katxea begiratzea, eta batzuetan esan behar diezu oker dabilzala, herri txiki bat dela eta 10.000 euroko proposamen bat egiten badigute, hemen ezin dugula hori gastatu. Nafarroako Antzoki Sarearen parte gara ere. Proposamenak kultur zinegotziari eramaten dizkiot eta, ondoren, kultur batzordean aurkezten ditugu. Kultur batzordea aholku emailea da. Adostutako zerbait izaten da. Elkarte eta kolektiboek egiten dituzten ekimen guztien berri dugu eta datozen hilabeteetan kultur etxean eginen diren ekimenen informazioa dugu. Urtarrilan programazio orokorra egiten dugu: Festak noiz ospatuko diren zehazten dugu, herriko festak, San Martin eta Trinitateak; mendi jardunaldiak... Urte osoko estruktura osoa egiten dugu eta ondoren elkarte bakoitzeko ordezkariak informazio hori kolektiboan jakinarazten dute eta zerbait antolatu nahi badute badakite noiz dagoen libre.

Zer behar da kultur teknikaria izateko?

Hasteko, ez dago formazio espezifikorik. Orain kultur kudeaketan master bat dago, baina ez dago trebakuntza espezifikorik. Oso garrantzitsua da formatzen joatea. Postuaren arabera izan ohi da; ni egon naiz etenga-



Patxi Mikeo, erdian, Isikidiko izaki mitologikoekin omenaldian. UTZITAKOA

Herriaren bizitza osorako "oparia"

Maiatzaren 19an ITBren buletaren aitzakiarekin sorpresa "izugarria" egin zioten Patxi Mikeo Ariztimuñori. "Goya serien" antzeko sari banaketa prestatu zuten, baina kategoria guztietan sariduna kultur teknikaria bera zen.



Patxi Mikeo Ariztimuño Irurtzango kultur eta kirol teknikaria kultur etxearen atean.

be administrazioan, Interneten, sare sozialetan, horretarako desastre bat naizela, eta abarrentan trebatzen. Eguneratzen joan behar zara. Bere garaian animazio soziokulturaleko graduondoko bat egin nuen, orduan Zaragozako Unibertsitatearen bidez, eta bertako eremuaren kudeaketarako ikastaro espezifikoa bat egin nuen ere. Monografiko asko egin ditut, denetarik: protokolo, areto teknikaria, kartelak diseinatzeak...

Horretarako ere interesa izan behar duzu.

"FORMATZEN JOAN BEHAR ZARA; AHAL IZAN DUDAN GUZTIAN TREBATU NAIZ, ETA ESKERRAK"

"OSO POZIK NAGO IKUSTEN DUDALAKO PARTE HARTZE HANDIA DAGOELA; OHITURA DA"

Bai, badira ogibide kideak ez direla gehiago trebatuko esan didatenak, nahi badute beste pertsona bat hartzeko eta hor gelditu dira. Baina interesa eta gogoia izan behar duzu, izan ere, ikastaroak egiten zauden bitartean, lana aurrera atera behar duzu ere. Nik interes hori ez dut inoiz galdu eta eskerrak. Ahal izan dudan guztian formatu naiz.

Kirolaren arloan zer egiten duzu?

Kirol arloa eskaini zidatenean nik esan nien azkar zela, eskaini zidatenean jardunaldi erdian nengoelako eta kultura egin nahi nuelako. Behin kulturari martxa hartu nionean kirola hartzeko momentua zela esan nien, baina nik ez nuela den-dena kudeatuko. Sakanako Mankomunitateko Kirol zerbitzuan gaude, eta kirol teknikari bat dago programa espezifikoa egiten. Nik bertako kirol elkarten programak lantzen lagunduko nituen, baita eskolaz kanpokoak koordinatuko nituen ere. Kolektiboen laguntzaile, gehienbat.

Zerbitzua asko aldatu da?

Analogikotik digitalera pasatu gara. Lehen dena karteletan iragartzen zen, eta gaur egun zer dagoen jasotzeko klik batean informazio guztia duzu. Jendeak asteburuan zer dagoen azkar ikus dezake. Parte hartzeari dagokionez zorionez Irurtzun oso herri parte hartzailea da eta horrela jarraitzen du. Etorri nintzenean Iratxo elkarte bultzatzaile bat zen, eta bertako jendearekin hasi nintzen, eta oraindik gaur egun parte hartzen du. Batzuk utzi dute, baina badago jendea jarraitzen duela. Iratxo esan dut erreferente bat izan delako, baina hor ere Pikuxar dago, harrigarria da egiten dutena; aktibitate handia du. Ni ez banengo ere ez zen nabaritu. Oso pozik nago ikusten duzulako aktibitate izugarria dagoela. Guztiak batera osagarri gara. Aizpeak zerbait antolatzen du eta udalari eta kultur etxeari laguntza eskatzen dio. Eta aurrera. Bestela zenbait gauza bakarrik aurrera eramatea ezinezkoa izan zen. Agenteak eta boluntarioak desagertzen joaten dira ere. Larrazpiren junta guztiak ezagutu ditut ere, batzuk oso problematikoak izan dira, baina gazteak dira. Orain bere kontura doaz, baina horrelakoak dira gazteak.

Herri parte hartzailea da.

Azkenean ohiturak eta kultura sortzea da. Jendea ohitura horiek hartzen joaten da. Aisialdirako proiektuak egiten dituzu, hori kultura da, eta kultura zu zarena da. Antzezlan edo dena delako horiek bizitzaren islada dira askotan. Jendea erlazionatzeko modu bat da ere. Ekimen horretara joango den jendea erlazionatzeko puntu bat izanen da.

Zer izan da hoberena?

Gogobetetze pertsonala eta jendeak ematen dizun errekonozimendua. Maiatzaren 19an engainatu ninduten. Lorena, Aitziber eta Itziarrek ITB egiten zuten eta esan zidaten berriz egin nahi zutela. Arraroa iruditzen zitzaidan duela bost bat urte ez zutelako egiten, baina esan zidaten jende berria hastea nahi zutela eta abar. Data horretan Barazkigunean ez zegoela ezer ikusi genuen, proiektatze-

ko pantaila behar zutela, aulkiak... Bikotekidearekin eta herriko kolektibo guztiekin konpintxatuta zeuden eta sari banaketa antzeko bat egin zuten. Sari guztiak Patxi Mikeorendako ziren. Opari erraldoia izan zen, bizitza osoan gordeko dudana. Nik gaizki pasatu nuen ikusten nuelako ez ziela denborarik emanen errekopilazioa egiteko. Erraldoien konpartsa atera zen, Iskidiko izaki mitologikoak... Sopresa izugarria izan zen, ez nuen espero.

Momentu txarrak?

Beti gelditzen zaizu sentsazioa norbaiti ez diozula bere ideia aurrera eramaten lagundu, pertsona horrek ez duela espero zuten laguntza jaso. Beste batzuetan haserretzen zara, eta gero pentsatzen duzu zergatik izan duzun jokabide hori. Bizitza bezala.



BAZTERRETIK

IRATI EIZAGIRRE SAGASTIBELTZA

Uda azkenean



"Erraldoiak egitea polita litzatekeela uste genuen"

Asteartean atzeneko azterketak egin zituzten, eta azken lanak despeditu. Beste azterketa bat pasa beharko dute Arbizuko festetan, bi erraldoi mustuko baitituzte Aner Artieda Diezek, Jon Orella San Martinek eta Ekhi Perez Sanzolek

Alfredo Alvaro Igoa ARBIZU

1 Zergatik sortu duzue erraldoi konpartsa?

E. Txikitatik gustatzen zaizkigu erraldoiak.

J. Arbizun beharra zegoela ikusten genuen. Beste herriek zuten eta Arbizuk ez. Eta egitea polita izanen litzatekeela pentsatu genuen.

A. Hirurok arima gara, eta beste lau zapabost laguntzaile daude.

2 Nola egiten da erraldoi bat?

E. Ideiarekin hasi ginen. Erraldoiak bi zatitan banatuta daude. Behekoa egurrezko egitura da, erraldoia altxatzeko balio duena. Goikoa gorputz enborra, besoak eta burua dira. Horiek beira zuntzez eginak daude. Eta egiteko ere buztina erabili dugu. Goikoa egiteko kartoizko egitura bat egin genuen, nahi genuen forma emanda, zuntza

gainean jarri eta gogortzen zenean kartona kendu eta beira zuntza besterik ez da gelditzen, gogor-gogorra.

3 Non ikasten da erraldoiak egiten?

J. Gauza batzuk bagenekizkien. Beste batzuk nola egin jakiteko Interneten bilatu dugu.

4 Materiala nondik atera duzue?

A. Udalari gastuak ordaintzea eskatu genion, guk ezin dugulako pagatu. Dirulaguntza eman zigun.

J. Garestiena arropa da. Oihal metro karratu asko dira.

E. Nire amak eta amonak egin dute arropa. Gainontzeko guztia guk egin dugu.

5 Erraldoiek espazio handia behar dute, non egin dituzue?

J. Dirua eskatzearekin batera erraldoiak eroso egiteko, gauzak sartzeko, toki bat eskatu genion

udalari. Eta industrialdean pabiloia utzi zigun.

A. Urtean zehar hemen egonen dira eta festetan herrian dagoen garaje batera jaitsiko ditugu, herritik gertuago egoteko.

6 Noiz hasi zineten?

A. Uda akaberan. Gehienbat asteazken eta ostiral arratsaldetan egon gara, bizpahiru ordu egunero.

7 Zein erraldoi egin dituzue?

E. Johanot gizonezkoa eta Maria Lonbre emakumezkoa. Azken horren inguruan ez daki-gu asko. Baina aukeratu dugu izena jende askok ezagutzen duelako, eta jendeak izena gogoratzea errazagoa izanen zelako. Txistorgile bat da, txistorra Arbizuko jaki tipiko bat delako.

J. Gizonezkoaren izena aukeratu dugu San Joan irudikatze. Artzain bat da. Erraldoiek 3,2



Ekhi, Aner eta Jon egin dituzten bi erraldoiak atzean dituztela.

metroko altuera eta 37 kilo inguru dituzte.

8 Dena prest duzue?

J. Bai. Orain entseateza falta zaigu. Guk dantzatuko ditugu. Hasi gara, baina oraindik falta da, baina ez asko. Orain arte erraldoi txikiak dantzatzen ibili gara. Baina handiekin orain hasi gara.

A. Niri Etxarri Aranazko Kixkimau pintto erraldoia gustatzen zait.

J. Niri Burlatakoak asko gustatzen zaizkit. Oso politak dira.

E. Entseatezko bafle batetik ateratzen den musikarekin ari gara. Baina festetako aurreneko egunean bi gaitari eta atabalari bat izanen ditugu. Hurrengo bi irtereean baflearekin ibiliko gara.

9 Noiz mustuko dituzue?

A. Lehenengoa 24an, San Joan egunean, izanen da, 20:00etan. Beste bi saioak goizez izanen

dira, hilaren 28an 12:30ean eta 29an 13:00etan. Hirurok gaude, eta Etxarri Aranazko konpartsa-ri dantzatzeko laguntza eskatu diogu.

10 Zer sentitzen da mustutzearen aurretik?

E. Gogoak. Ilusioa. Urte guztia hau egiten egon eta mugitu ahal izatea, ongi dago.

J. Baten batek ikusi ditu erraldoiak, baina nahiko sorpresa izanen da.

11 Behin erraldoiak eginda, konpartsa osatzeko buruhandiak eginen dituzue?

A. Udalaren aldetik aukera badugu, eta jende gehiago badugu, jarraitzea gustatuko litzaiguke eta, ahalko balitz, beste erraldoi pare bat egitea. Edo, bestela, buruhandiekin jarraitzea.

E. Konpartsan sartu nahi duenak gurekin harremanetan jar dadila.

BADAKIZU ZER EGITEN DUGUN?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



gk
DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

619 821 436
 info@gkomunikazioa.eus
 www.gkomunikazioa.eus
 Foru plaza, 23-1. Altsasu

ILUSTRAZIOA

KOMUNIKAZIOA

Diseinu Korporatiboa

PUBLIZITATEA

Diseinu Editoriala

MAKETAZIOA

APLIKAZIOAK

DISEINU GRAFIKOA

BISITA TARTETAK